# XEDAPEN OROKORRAK

## HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

## 1248

*22/2016 DEKRETUA, otsailaren 16koa, zeinen bidez ezartzen baitira koreografia eta interpretazioa espezialitateko dantzako goi-mailako arte irakaskuntzak eta Euskal Autonomia Erkidegorako ikasketa-plana.*

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 54. artikulutik 58.era arautzen dira Goi Mailako Arte Irakaskuntzak, zeinen parte baitira Dantzako irakaskuntzak, eta ezartzen du Gobernuari dagokiola zehaztea, Autonomia Erkidegoei eta Arte Irakaskuntzen Kontseilu Gorenari kontsulta egin eta gero, Goi Mailako Arte Irakaskuntzen ikasketen oinarrizko egitura eta edukia.

Manu hori betetzeko eman zen urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretua, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan araututako goi-mailako arte irakaskuntzak antolatu zituena, bai eta maiatzaren 14ko 632/2010 Errege Dekretua ere, 2/2006 Lege Organikoan ezarritako Dantzako goi-mailako arte-irakaskuntzen oinarrizko edukia arautu zuena. 632/2010 Errege Dekretuaren 7. artikuluaren arabera, ikastetxeen proposamena ikusirik, Hezkuntza Administrazioek ezarriko dute ikasketa-plana, bertan zehaztutako gutxienekoetatik gutizko 240 kredituak osatu arte. Halaber, haren 6. artikuluaren arabera, zeharkako konpetentziak, konpetentzia orokorrak eta berariazko konpetentziak eta espezialitate bakoitzerako bertan zehaztutako profil profesionalak bildu beharko dituzte ikasketa-planek.

Maiatzaren 14ko 632/2010 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian zioenez, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren lehenengo xedapen gehigarrian eta aipatu legean araututako hezkuntza-sistemaren antolamendu berria aplikatzeko egutegia ezartzen duen ekainaren 30eko 806/2006 Errege Dekretuaren 23. artikuluan xedatuarekin bat, 2010-2011 ikasturtean hasiko ziren ezartzen, progresiboki, Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzak.

Azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuan xedatuaren arabera, zeinen bidez onartzen baita pertsona desgaituen eskubideen eta horiek gizarteratzearen Lege Orokorraren Testu Bategina, irisgarritasuna sustatzearen arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko dira.

Europako Goi Mailako Hezkuntzako Espazioaren proposamenetik taxutzen da koreografia eta interpretazioa espezialitateko dantzako goi-mailako arte irakaskuntzen ikasketa-plana, eta, plan horren arabera, ikasketa-planen oinarria izan behar da ikasleek konpetentziak berenganatzea, ikasketa-metodologia berri bat aplikatzea eta ebaluazio-prozedurak egokitzea. Ondorioz, proposatzen da Europako kredituak (ECTS) izan daitezela ikasketa-emaitzak eta ikasleek eginiko lan-bolumena islatzen dituen neurri-unitatea; era berean, ikasleen mugikortasuna bermatuko da, horrela ahalbidetuz Europako Gehigarria Titulua lortzea.

Dena den, maiatzaren 14ko 632/2010 Errege Dekretuaren arabera, Hezkuntzako Administrazioek ezarriko dute, Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzak eskaintzen dituzten ikastetxeen proposamenak ikusirik, espezialitate bakoitzari dagokion ikasketa-plana. Ezartzen diren ikasketa-planak doitzen zaizkie maiatzaren 14ko 632/2010 Errege Dekretuan ezarritako oinarrizko egitura eta edukiei, eta planotan adierazten da zein den lanean jarduteko oinarrizko prestakuntza eta gutxieneko berariazko prestakuntza.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, Euskal Autonomia Erkidegoan dantzako irakaskuntzak emateko dagoen beharraz oharturik, dantzaren tradizioa egon baitago, uste du egokia dela Koreografia eta Interpretazioko Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzak ezartzea.

Horregatik, orain ezarri eta garatu behar da Koreografia eta Interpretazioa espezialitateko Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzako ikasketa-plana, maiatzaren 14ko 632/2010 Errege Dekretuan xedatuaren arabera, zeinen bidez arautzen baita Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan ezarritako Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzako oinarrizko edukia.

Koreografia eta Interpretazioa ikasketek pertsonaren garapen osoari laguntzen diote, alde batera utziz sexuaren araberako estereotipoak eta rolak, bai eta bereizkeria mota oro ere, generoaren eraginik gabeko orientazio akademikoa eta profesionala bermatuz. Horretarako, emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna bultzatuko da alor guztietan.

Hori dela eta, Euskadiko Eskola Kontseiluari entzunik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legean aipatu nahitaezko izapideak beterik, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2016ko otsailaren 16an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

## I. KAPITULUA

## XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea eta ezarpen-esparrua.

Dekretu honen bidez ezartzen da Euskal Autonomia Erkidegorako, Koreografia eta Interpretazioa espezialitateko Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzako ikasketa-plana –Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aurreikusi ziren irakaskuntza horiek–, eta Goi Mailako Hezkuntzako Europako Espazioaren printzipio orokorren arabera eta Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzak ezartzeko urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuaren arabera ezarri ere.

2. artikulua.– Iraupena, egitura eta hizkuntza-tratamendua.

1.– Lau ikasturte iraungo dute Koreografia eta Interpretazioa espezialitateko dantzako irakaskuntzek: ikasturte bakoitza 60 ECTS kreditukoa, hau da, orotara, 240 ECTS kreditu, kredituak transferitzeko Europako sistemaren arabera. Ikasketa-plana osatzen duten ikasgai eta irakasgai guztien artean banatuko dira kredituak, honela:

a) Oinarrizko prestakuntzak 12 kreditu izango ditu, gutxienez. Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzako oinarrizko edukia arautzeko maiatzaren 14ko 632/2010 Errege Dekretuaren II. eranskinean ageri dira oinarrizko prestakuntzako gutxieneko honi dagozkion ikasgaiak, edukiak eta kredituak. Dekretu honen I. eta II. eranskinetan ageri diren ikasgaiak jasoko dituzte oinarrizko prestakuntzako ikasgaiek, eta ikasketa-planen lehenengo erdian emango dira.

b) Prestakuntza espezializatuak 104 kreditu izango ditu, gutxienez. Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzako oinarrizko edukia arautzeko maiatzaren 14ko 632/2010 Errege Dekretuaren III. eranskinean ageri dira berariazko prestakuntzako gutxieneko honi dagozkion espezialitateko derrigorrezko ikasgaiak, edukiak eta kredituak. Dekretu honen I. eta II. eranskinetan ageri diren ikasgaiak jasoko dituzte espezialitateko derrigorrezko ikasgaiek.

c) Kanpoko praktikek 10 kreditu izango dituzte, gutxienez. Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzako oinarrizko edukia arautzeko maiatzaren 14ko 632/2010 Errege Dekretuaren III. eranskinean ageri dira gutxieneko honi dagozkion irakasgaiak, edukiak eta kredituak.

d) Ikasketen amaierako lanak 7 kreditu izango ditu, gutxienez, eta ikasketa-planen azken fasean egingo da. Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzako oinarrizko edukia arautzeko maiatzaren 14ko 632/2010 Errege Dekretuaren III. eranskinean ageri dira gutxieneko honi dagozkion irakasgaiak, edukiak eta kredituak.

2.– Hauek sartuko ditu ikastetxeak hezkuntza-proiektuan: ikastetxearen nortasuna gorpuzten duten ezaugarriak eta balioak; bere printzipioen araberako hezkuntza-helburuak; beren ezaugarrien arabera, ikasleek eskuratu beharreko oinarrizko konpetentziak; hizkuntzaren, curriculumaren eta antolakuntzaren arloko oinarrizko irizpideak, estrategia-lerro nagusiak eta lehentasunezko jardunak. Honela, uztailaren 23ko 182/2002 Dekretuan xedatuaren araberakoa izango da hizkuntzaren tratamendua –dekretu horretan ezartzen dira Araubide Bereziko Irakaskuntzetako eta Helduen Hezkuntzako irakasleen lanpostuetako hizkuntza-eskakizunak zehazteko irizpideak eta derrigortasun-datak–.

3. artikulua.– Sarbidea.

1.– Irakaskuntza hauetara sartzeko, beharrezkoa izango da batxiler-titulua edo haren baliokidea izatea, edo Unibertsitatera sartzeko hogeita bost urtetik gorakoentzako proba gainditua izatea.

2.– Eskatutako titulazioa ez duten hemeretzi urtetik gorakoek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak araututako proba bat gainditu beharko dute sartu ahal izateko. Proba horretan, izangaiek hauek egiaztatu beharko dituzte: alde batetik, behar bezain helduak direla batxilergoaren helburuei dagokienez; bestetik, badituztela kasuan kasuko ikasketak emaitza ona lortuz egiteko behar diren ezagutzak, trebetasunak eta gaitasunak.

3.– Gainera, 1. eta 2. ataletan jasotako kasuetan, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak arautu berariazko sarrera-proba bat gainditu beharko da, zeinetan baloratuko baitira ikasketa hauek probetxuz agiteko behar diren ezagutzak, trebetasunak eta gaitasunak.

4.– Hezkuntzako sailburuordeak izendatuko du berariazko sarbide-proba ebaluatzeko epaimahaia: lehendakari batek eta, gutxienez, bi bokalek osatuko dute. Izangai-kopurua handia bada, epaimahai bat baino gehiago izendatu ahal izango da.

5.– Proba gainditzeak aukera emango du ikasketa horiek eskaintzen dituen Espainiako estatuko edozein ikastetxetan sartzeko, baldin eta ikastetxe horietan plaza libreak badaude, betiere.

6.– Urtean behin gutxienez, Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzetara sartzeko berariazko sarbide-probaren deialdi bat egingo du Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak.

4. artikulua.– Ikasketa-plana.

1.– Maiatzaren 14ko 632/2010 Errege Dekretuan ezarritako ikasgai bakoitzaren ikasketa-plana, irakasgai batean edo gehiagotan. I. eranskinean jasotzen den ikasketa-planak barne hartzen ditu bai derrigorrezko eta hautazko irakasgai bakoitzari dagozkion kredituak, bai zer kurtsotan egin behar diren ere; orotara, 240 ECTS kreditu izango dira.

2.– Honako ordu hauek sartuta daude ikasgai eta irakasgai bakoitzarentzako kredituetan: eskola-orduak –teorikoak edo praktikoak–; ikasketa-orduak; mintegietarako, lanetarako, praktiketarako eta proiektuetarako orduak, eta azterketak eta ebaluazio-probak prestatu eta egiteko eskatutakoak.

3.– Honela banatuko dira Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzen ikasketa-planen 240 ECTS kredituak:

a) Dekretu honen I. eta II. eranskinetan ageri dira oinarrizko prestakuntzako ikasgaiak. Ikasketa-planen lehenengo erdian emango dira.

b) Dekretu honen I. eta II. eranskinetan ageri diren ikasgaiak jasoko dituzte espezialitateko derrigorrezko ikasgaiek.

c) Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzetan, hautazko sei irakasgai ikasi beharko dituzte ikasleek.

d) Praktikek 10 ECTS kreditu izango dituzte.

e) Ikasketen amaierako lanak 7 kreditu izango ditu, eta ikasketa-planen azken fasean egingo da.

4.– Dekretu honen III. eranskinean zehazten dira Koreografia eta Interpretazioa espezialitateko Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzei dagozkien zeharkako konpetentziak.

5.– Dekretu honen IV. eranskinean zehazten dira Koreografia eta Interpretazioa espezialitateko Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzei dagozkien konpetentzia orokorrak.

6.– Dekretu honen V. eranskinean zehazten dira Koreografia eta Interpretazioa espezialitateko Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzei dagozkien berariazko konpetentziak.

7.– Dekretu honen VI. eranskinean zehazten dira Koreografia eta Interpretazioa espezialitateko Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzei dagozkien profil profesionalak.

8.– Kredituen esleipena eta kreditu horiei dagokien gutxi gorabeherako ordu-kopurua dagokio ikasturte bakoitzeko 36 astez, gutxienez, goi-mailako arte-irakaskuntza denbora osoz ikasten diharduten ikasleek egiten dutenari. 30 izango dira kreditu bakoitzaren gutxieneko orduak.

9.– Ikastetxe emaileak ezarriko du, eta publiko egingo, ikasgai bakoitzerako nahitaezko presentziaren kredituen portzentajea.

5. artikulua.– Ibilbideak taxutzea.

1.– 4.3.c artikuluan zehaztu bezala, ikasleek hautazko 6 irakasgai egin beharko dituzte dekretu honen bidez arautako Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzan zehar.

2.– Hautazkoak, ikastetxeko zuzendaritza-taldearen proposamenez, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak onartuko ditu.

3.– Eskaintza koherentea izan beharko da, ikasleei, haiek hala nahi izanez gero, espezializazioko hainbat prestakuntza-ibilbide ikastea ahalbidetzeko gisan.

4.– Ibilbide bat gainditutzat joko da, aurretik eskainitako irakasgai baten barnean jasotako hautazko 4 irakasgaiak egin dituenean ikasleak.

5.– Eskain daitekeen beste edozein ibilbide gorabehera, ikastetxe emaileak lehentasunez eskainiko du euskal erroak dituen dantza tradizionalari buruzko ibilbide bat.

6.– Ibilbide bateko hautazko irakasgaiez gain, beste bati dagokion hautazko bat gutxienez egin beharko du ikasleak.

7.– Dagokion ibilbidea gainditu dela jasota geratuko da Tituluaren Gehigarri Europarrean.

6. artikulua.– Ebaluazioa eta kalifikazio-sistema.

1.– Ikasle bakoitzaren ikasketa-prozesuaren ebaluazioak, zeina irakasgaika bereizia izango baita, aintzat hartuko du horietako bakoitzerako definitutako konpetentzien bereganatze-gradua eta -maila.

2.– Ikasketen amaierako lanaren ebaluazioa eta kalifikazioa bakarra izango da, eta, berau gainditzeko, gaindituak izan beharko dira dagokion ikasketa-plana osatzen duten irakasgai guztiak.

3.– Dekretu honen II. eranskinean zehazten dira Koreografia eta Interpretazioa espezialitateko Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzen irakasgai bakoitzaren ebaluazio-irizpideak, eta ikasturte hasieran jarriko dira jendaurrean. Barne hartuko dituzte horretarako zehazten diren parametroen arabera objektibagarriak eta neurgarriak diren adierazleak.

4.– Irakasgai bati dagozkion kredituak lortzeko, dagozkion ebaluazio-probak gainditu beharko dira.

5.– Kalifikazio numerikoen bidez adieraziko da ikasleak lortzen duen ikasketa-maila, eta bere espediente akademikoan islatuko dira kalifikaziook, ikasturte bakoitzean dagozkien ikasgaiak egin dituzten ikasle guztiekiko, kalifikazio horiek duten banaketa-portzentajearekin batera.

6.– Formula hau aplikatuz aterako da ikasle bakoitzaren espediente akademikoaren batezbestekoa: ikasleak lortutako kredituetako bakoitza hari dagokion kalifikazioaz biderkatuko da, kreditu guztiei dagozkien biderkadurak batu egingo dira, eta lortutako emaitza ikasleak guztira lortutako kreditu kopuruaz zatituko da.

7.– 0tik 10era bitarteko zenbakizko eskala baten arabera kalifikatuko dira ikasketa-planeko irakasgaietako bakoitzean ikasleak lortutako emaitzak; zenbakizko kalifikazioak dezimal bat izango du, eta dagokion kalifikazio kualitatiboa ere gehitu ahal izango zaio. Hau da eskala:

0 - 4.9: Gutxiegi (G)

5.0 - 6.9: Nahiko (N)

7.0 - 8.9: Oso ongi (OO)

9.0 - 10: Bikain (B)

8.– Ikasleek lau deialdi izango dituzte, gehienez, irakasgai bakoitza gainditzeko, eta bi deialdi, gehienez, ikasketen amaierako lana gainditzeko.

9.– Ikasketa-planean barne hartu gabeko prestakuntza-jarduerei dagozkien kredituak aitortzetik lortutako kredituak ez dira numerikoki kalifikatuko, eta ez dute eraginik izango espediente akademikoaren batezbestekoaren gainean.

10.– Lehenengo deialdian 9,0 kalifikazioa edo hobea lortu duten ikasleei eman ahal izango zaie «Ohorezko Matrikula». Hala ere, «Ohorezko Matrikula» ezingo zaio eman dagokion ikasturtean irakasgai batean matrikulatutako ikasleen ehuneko bostari baino gehiagori, eta, baldin eta 20 baino txikiagoa bada matrikulatutako ikasle-kopurua, «Ohorezko Matrikula» bakarra eman ahal izango da.

7. artikulua.– Kurtsoz igarotzea eta ikastetxean jarraitzea.

1.– Ikasleak ezingo dira ikastetxean sei ikasturte baino gehiago egon.

2.– Dantza-ikasketen bigarren kurtsoko ikasgaietan matrikulatu ahal izateko, lehenengo kurtsoko 40 ECTS kreditu, gutxienez, gainditu beharko da.

3.– Dantza-ikasketen hirugarren kurtsoko irakasgaietan matrikulatu ahal izateko, lehenengo kurtsoko irakasgai guztiak, gutxienez, gainditu beharko dira. Dantza-ikasketen laugarren kurtsoko irakasgaietan matrikulatu ahal izateko, bigarren kurtsoko irakasgai guztiak, gutxienez, gainditu beharko dira.

4.– Kurtso aurreratuago bateko irakasgaietan matrikulatu ahal izateko, aurreko kurtsoan gainditu gabe dituzten irakasgai guztietan ere matrikulatu behar dira ikasturte berean.

5.– Eduki progresiboko bi irakasgaietan matrikulatu ahal izateko ikasturte berean, ikastetxeak matrikula zabaltzea onartu beharko dio ikasleari.

6.– Hautazko irakasgairen bat gainditu ezean, beste hautazko irakasgai bat hautatu ahal izango du hurrengo ikasturtean ikasleak, ikastetxeak eskaintzen dituenetatik, hargatik eragotzi gabe hautazko irakasgai horretan jada erabilitako deialdiak kontatzea.

8. artikulua.– Graziazko deialdia.

1.– Ikasketen antolamenduen hainbat mailatan aurreikusitako baliabide bat da aparteko deialdia edo graziazkoa. Haren helburua da deialdi-kopurua malgutzea aparteko zenbait baldintza gertatzen direnean, honela, ez behin betiko agortzeko ikasketak egiten ari den ikasleak ikastetxean jarraitzea.

2.– Egoera berezietan eta behar bezala justifikatutako arrazoiengatik baimendu ahal izango da graziazko deialdia; ikasleak aurrez eskatu beharko du, eta, Goi Mailako Arte Irakaskuntzetan zehar, bi irakasgaitan (salbuespenez, hirutan) baino ezingo du eskatu, deialdi guztiak agortu eta gero, eta irakasgai bakoitzean behin bakarrik.

3.– Kasu hauetan aurkeztu ahal izango da eskabidea:

a) baldin eta ordura arte gainditutako kredituen % 10 edo gutxiagokoa bada aparteko deialdia eskatzen deneko kreditu kopurua.

b) baldin eta kurtso horretako guztizko kredituen % 20 baino gutxiago badira kurtso batean ikasleak gainditzeke dituen kredituak.

4.– Irakasgaiaren laugarren deialdiko kalifikazioa, edo, hala dagokionean, notaren erreklamazioaren behin betiko ebazpena jakinarazi eta hilabete igaro baino lehen aurkeztuko da graziako deialdiaren eskabidea. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzari zuzenduko zaio eskabidea, eta ikastetxeko idazkaritzan aurkeztuko da.

5.– Behar bezala arrazoitutako eskabideari erantsiko zaizkio berau justifikatzen duten arrazoiak egiaztatzeko agiriak (gaixotasuna, lanean hastea, seme-alabak zaintzea edo bestelakoak).

6.– Eskabidea ikusirik, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak ebatziko du, ikastetxeko zuzendaritzari kontsulta egin eta gero eta eskatzailearen inguruabar akademikoak eta pertsonalak aintzat hartuta, betiere. Eskabidea egin eta ondorengo bi ikasturteetarako izango du balioa aldeko ebazpenak. Ezarritako epeetan egin beharko du irakasgaiari dagokion matrikula aparteko deialdia onartu zaion ikasleak. Aparteko deialdia ukatuz gero, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dio eskatzaileak Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako sailburuordeari, hilabeteko epean, uko-egitea jakinarazten den egunetik aurrera.

9. artikulua.– Matrikula eta deialdia deuseztatzea, ikasleak hala eskaturik.

1.– Ikasturtea hasten den urte naturaleko azken irakasteguna baino lehen, ikasturte osoaren matrikula deuseztatzea eskatu ahal izango du ikasleak. Matrikula deuseztatzeak ekarriko du prezio publiko gisa ordaindu diren zenbatekoak itzultzea, eta matrikulatu ez den ikaslearen kontsiderazio bera izango du ikastetxean jarraitzeari begira.

2.– Ikasturte osoko matrikula ezesten duen ikasleak ikastetxeko ikasle izaera galduko du, eta, beraz, ondorengo kurtso batean matrikulatu nahi izango balu, haren matrikula ikastetxean dagoen plazen mende egongo da.

3.– Oro har, ikasleak, bere onerako, irakasgaiaren deialdiari uko egitea eskatu ahal izango du irakasgaia ematen amaitu baino hamabost egun lehenago arte, ikastetxeak urteko bere programazio orokorrean edo, hala dagokionean, irakasgaiaren irakas-gidan ezartzen duen egutegiaren arabera, zeina ikastetxeak argitaratuko baitu.

10. artikulua.– Matrikula galtzea eskola presentzialetara huts egiteagatik.

1.– Baldin eta ikasle bat eskoletara joaten ez bada eskola-hilabetez jarraian edo matrikulatuta dagoen irakasgaiei dagozkien irakastordu presentzial guztien % 30 huts egiten badu uneren batean, ikastetxeko zuzendariak, ikasleari entzun eta gero, ikasle horren matrikula deuseztatuko du, hargatik eragotzi gabe artikulu honen 2. atalean xedatua.

2.– Justifikatutako arrazoiengatik huts eginez gero eskoletara, horren berri eman beharko dio interesdunak ikastetxeko zuzendariari, eta, kasu horretan, interesdunak ez du galduko ikasle izaera, non eta ez duen bi hilabetez baino gehiagoz jarraian huts egin eskolara edo ez duen pilatu matrikulatu deneko irakasgaiei dagozkien irakastordu presentzialen % 50eko asistentzia-falta.

3.– Matrikula deuseztatzearen ondorioz, zeina interesdunari idatziz dudarik gabe jakinaraziko baitzaio, ikasleak galduko du, batetik, ikastetxeko ikasle izaera dagokion ikasturtean, eta, bestetik, matrikula gisa ordaindutako prezio publikoa.

4.– Baldin eta lehenengo kurtsoko matrikula bada, ikastetxean berriz sartu ahal izateko, berariazko sarbide-proba bat gainditu beharko du ikasleak. Beste kurtso bateko matrikula bada, aldiz, hurrengo kurtsoetan matrikulatu ahal izateko, plaza libreak egon beharko dira ohiko matrikulazio-aldia amaitu eta gero.

11. artikulua.– Titulazioa.

1.– Dantzako Goi Mailako Arte Irakaskuntzak gaindituta, Koreografia eta Interpretazioa espezialitateko Dantzako Goi Mailako Titulua eskuratuko da. Ofiziala izango da titulu hori, eta Espainiako Estatuko lurralde osoan izango du balio akademikoa eta profesionala.

2.– Dantzako Goi Mailako Tituluarekin sarbidea izango da graduondoko eta doktoretzako unibertsitateko irakaskuntza ofizialetara, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuan ezarritako baldintzetan –Unibertsitateko ikasketa ofizialak arautzen dituena–, eta graduondoko eta doktoretzako arte irakaskuntza ofizialetara, urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuan ezarritako baldintzetan –maiatzaren 3ko Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoak arautako goi-mailako ikasketen antolakuntza ezarri zuena.

12. artikulua.– Kredituak aitortzea eta transferitzea.

1.– Oro har, lortutako kredituak aitortu ahal izango ditu Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, aintzat harturik egindako irakasgaien konpetentzien eta edukien eta egiten ari den ikasketa-planean aurreikusitakoen arteko egokitasuna.

2.– Espedientea autonomia-erkidego batetik bestera bidaliz gero, ikasketa berekin jarraitzeko, lortutako kreditu guztiak aitortuko dira.

3.– Dantzako Goi Mailako Tituluaren espezialitate berri bat hastean, oinarrizko trebakuntzako ikasgaiei dagozkien lortutako kreditu guztiak aitortuko dira.

4.– Ez dira inolaz ere aitortuko egiten ari den ikasketen amaierako lanari esleitutako kredituak.

5.– 6 kredituren aintzatespena jaso ahal izango dute ikasleek kultura-, arte-, kirol-, ikasleen ordezkaritza-, elkartasun- eta lankidetza-esparruetako jardueretan parte hartzeagatik.

6.– Kredituak aitortzen zaizkien irakasgaietarako, jatorrizko ikastetxean lortutako kalifikazioa kontatuko da. Kalifikaziorik ez duen kredituen aitorpena ez da kontuan izango haztapenerako.

7.– Tituluaren gehigarri europarrean islatuko dira transferitutako kredituak.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko otsailaren 16an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

I. ERANSKINA, OTSAILAREN 16KO 22/2016 DEKRETUAREN

IKASKETA-PLANA

| **IKASGAIAK** | **IRAKASGAIAK** | **1** | **2** | **3** | **4** |
|---|---|---|---|---|---|
| Dantzaren Historia eta Giza Zientziak | Dantzaren Historia I | 3 | | | |
| | Dantzaren Historia II | | 3 | | |
| | Artearen Filosofia | | | 3 | |
| | Artearen eta Ikuskizunaren Historia | | | | 3 |
| Dantzari Aplikatutako Osasun Zientziak | Anatomiari, Biomekanikari eta Dantzari Aplikatutako Patologiak | 4 | | | |
| | **Fisiologiari eta Dantzari Aplikatutako Elikadura** | | 2 | | |
| | Gorputz-teknikak I | | | 2 | |
| | Gorputz-teknikak II | | | | 3 |
| Dantzaren eta Mugimenduaren Teknikak | Dantza Garaikidearen Teknika I, II, III | 9 | 9 | 9 | |
| | Dantza Garaikidearen Teknika I, II, III | 9 | 9 | 9 | |
| | Dantza Klasikoaren Teknika IV | | | | 5 |
| | Dantza Garaikidearen Teknika IV | | | | 5 |
| Konposizio Koreografikoko eta Inprobisazioko Teknikak. Sorkuntza-sistemak eta -tresnak | Mugimenduaren Azterketa | 3 | | | |
| | Konposizioa eta Inprobisazioa I, II, III | 3 | 3 | 3 | |
| | Sorkuntza-tailerrak, estiloen arabera I, II, III | 6 | 6 | 6 | |
| Lan koreografikoen eta errepertorioaren azterketa eta praktika | Errepertorioaren azterketa eta praktika, estiloen arabera I, II, III | 6 | 6 | 6 | |
| | Interpretazio-tailerrak, estiloen arabera I, II, III | 10 | 10 | 10 | |
| Dantzari Aplikatutako Musika eta Soinu-hizkuntzak | Dantzari Aplikatutako Musika I | 3 | | | |
| | Dantzari Aplikatutako Musika II | | 3 | | |
| | Ahotsa eta Kantua | | | 2 | |
| Eszenaratzea eta Dramaturgia | **Dramaturgia eta Eszenaratzea** | | 3 | | |
| | Diziplinarteko Proiektuen Laborategia I | | | 3 | |
| | Diziplinarteko Proiektuen Laborategia II | | | | 4 |
| Dantzari Aplikatutako Teknologiak | | | | | |
| | Dantzari Aplikatutako Teknologia | | | | 4 |
| **Dantzaren Psikopedagogia** | **Dantzaren Ikaskuntza eta Garapena** | 4 | | | |
| | Taldeen eta Erakundeen Psikologia | | 2 | | |
| Hezkuntza-proiektuak prestatu, kudeatu eta gauzatzea | | | | | |
| | **Proiektuak prestatu, kudeatu eta gauzatzea** | | | | 6 |
| | **Ikerkuntzaren Metodologia** | | | | 2 |
| Hautazkoak | Hautazkoa I, II, III | | 4 | 7 | 11 |
| Kanpoko praktikak | | | | | 10 |
| Ikasketen Amaierako Lana | | | | | 7 |
| | | 60 | 60 | 60 | 60 |

II. ERANSKINA, OTSAILAREN 16KO 22/2016 DEKRETUAREN A.

IKASGAIAK ETA EDUKIEN BLOKEAK

**LEHENENGO KURTSOA**

**Irakasgaia: Dantzaren Historia I**

**Kurtsoa:** 1

**Kreditu kop.:** 3

**Deskribatzaileak:**
Dantzaren Historiaren Epistemologia. Dantza eta erritua. Kultura klasikoa. Dantza Erdi Aroan. Iturri musikalak eta ikonografikoak. Dantza Errenazimenduan. Eskuizkribuak eta tratatuak. Dantza errenazentisten tipologia. Barrokoaren kultura. Dantza Barrokoa. Genero berriak: *La comedie-ballet* eta *la tragédia lyrique*. Dantza barrokoen tipologia. Errepertorioak eta tratatu-idazleak. Dantza Espainiako Urrezko Mendean. Dantza Argien Mendean. Opera-balleta. Tratatu-idazle nagusiak. Pentsamendu ilustratua. Ballet d’action. Dantza Espainia Ilustratuan. Bolero tradizioaren hasiera. Iturri nagusiak.
**Konpetentziak:**
Dantzaren irakaskuntzako mugimenduak, joerak eta eskolak ezagutzea, baita dantza-estiloen garapen historikoa eta gaur egunera arte izan duen eboluzioa ere.
Gertaera eszenikoarekin loturiko egungo korronteak ezagutzea.
Gai izatea dantzak testuinguru kultural ezberdinetan izan duen garapen eta eboluzio historikoa, soziala eta artistikoa aztertu eta baloratzeko.
Sorkuntza artistikoaren eta eszenikoaren azterketa kritikoa eta metodologikoa eta judizio estetikoa ahalbidetzen duten ezagutza teorikoak izatea eta bateratzea.
Gai izatea dantzari buruzko diskurtso propioa, ahozkoa, idatzizkoa edo bisuala landu, justifikatu eta azaltzeko, eta hainbat eremutan jakinaraztea: profesionalak, artistikoak, amateurrak, izan espezializatuak nahiz ez gai artistikoetan edo dantza-gaietan.
Gogoeta- eta kritika-gaitasuna garatzea dantzako lanak, izan errepertoriokoak nahiz berriak, aztertu eta baloratzeko, aldi ezberdinak aintzat hartuz eta, besteak beste, alderdi historikoak, artistikoak eta sozialak barne hartzen dituen ikuspegi batetik.

**Irakasgaia: Anatomiari, Biomekanikari eta Dantzari Aplikatutako Patologiak**

**Kurtsoa: 1**

**Kreditu kop.:** 4

**Deskribatzaileak:**
Anatomiako eta Biomekanikako oinarrizko ezagutzak, eta horiek dantzari praktikan aplikatzea. Dantzaren tekniken funtsak eta azterketa biomekanikoa. Patologiaren oinarrizko ezagutzak izatea, eta horiek dantzari aplikatzea. Etiologiaren funtsak, prozesu patologikoak eta horien prebentzioa dantzan.

**Konpetentziak:**
Giza gorputzaren anatomia, fisiologia eta biomekanika eta dantzako adierazpide artistiko gisa dituen gaitasun eta mugak ezagutzea.
Dantzako ohiko prozesu patologikoak, horien arrazoiak, eta eskeleto-muskuluaren sistemaren patologiaren eta beste aparatu eta sistema batzuen prebentzioko oinarrizko printzipalak ezagutzea.

**Irakasgaia: Dantza Klasikoaren Teknikak I**

**Kurtsoa:** 1

**Kreditu kop.:** 9

**Deskribatzaileak:**
Dantza klasikoaren teknika ikastea, dantza klasikoa osatzen duten mugimenduen ezagutzan eta burutzapenean sakontzea ahalbidetzen duten eskola praktikoen bidez, kalitate tekniko, musikal eta artistiko gorenarekin interpretatuak izateko gisan. Dantza klasikoa testuinguruan jarri eta funtsatzea. Dantza klasikoaren teknikaren oinarri diren gorputzari eta mugimenduari buruzko teoriak eta funtsak.
Oharra: Dantza Klasikoa I, II, III, IV irakasgaiek lau ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

**Konpetentziak:**
Dantza klasikoa ulertu, sortu, interpretatu eta irakasteko gaitua izatea, eskatutako maila tekniko, estilistiko eta interpretatiboarekin.
Giza gorputzaren funtzionamenduaren oinarrizko printzipioak ezagutzea tekniken bidez, haren ikuspegi osoa eta bateratzailea emateko.
Dantza, mugimendu eta gorputz-diziplinen teknika eta hizkuntzen ezagutza zabala izatea, teknika, estilistika eta interpretazioaren maila gorenarekin.
Heldutasunez eta zorroztasunez ulertu, ikasi eta interpretatzea lan koreografiko bat edo errepertorioko bat, maila tekniko, estilistiko, interpretatibo eta artistiko handia erakutsiz.
Praktika eszenikoetan parte hartzea ahalbidetzen dioten trebetasunak garatzea.
Sortzaile nagusien joerak eta proposamenak ezagutzea, eta hainbat gai izatea estilo interpretatu eta menderatzeko.

**Irakasgaia: Dantza Garaikidearen Teknikak I**

**Kurtsoa:** 1

**Kreditu kop.:** 9

**Deskribatzaileak:**
Dantza garaikidearen teknika ikastea, dantza garaikidea osatzen duten mugimenduen ezagutzan eta burutzapenean sakontzea ahalbidetzen duten eskola praktikoen bidez, mugimenduok maila tekniko, estilistiko, interpretaziozko eta artistiko gorenarekin emanak izateko gisan.
Printzipio estetikoak eta teknikoak, dantza garaikidearen oinarri diren gorputzari eta mugimenduari buruzko teoriak eta funtsak.

**Oharra:** Dantza Garaikidea I, II, III, IV irakasgaiek lau ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

**Konpetentziak:**
Dantza garaikidea ulertu, sortu, interpretatu eta irakasteko gaitua izatea, eskatutako maila tekniko, estilistiko eta interpretatiboarekin.
Dantzaren, mugimenduaren eta gorputz-diziplinen teknika eta hizkuntzen ezagutza zabala izatea, maila tekniko, estilistiko eta interpretatibo gorenarekin.
Giza gorputzaren funtzionamenduaren oinarrizko printzipioak ezagutzea tekniken bidez, haren ikuspegi osoa eta bateratzailea emateko.
Praktika eszenikoetan parte hartzea ahalbidetzen dioen trebetasunak garatzea.

Heldutasunez eta zorroztasunez ulertzea, ikasi eta interpretatzea lan koreografiko bat edo errepertorioko bat, maila tekniko, estilistiko, interpretatibo eta artistiko handia erakutsiz.
Sortzaile nagusien joerak eta proposamenak ezagutzea, eta hainbat gai izatea estilo interpretatu eta menderatzeko.
Sakonki ezagutzea dantza-, mugimendu- eta gorputz-teknikak, eta bestelako hizkuntzei buruzko ezagutzak izatea.

**Irakasgaia: Mugimenduaren azterketa**

**Kurtsoa:** 1

**Kreditu kop.: 3**

**Deskribatzaileak:**
Labanek hasitako mugimenduaren azterketaren printzipioei sarrera. Mugimenduaren alderdi kualitatiboen behaketa eta deskripzioa, fenomeno fisiko eta mental gisa. Mugimendu adierazkorra esperimentatzea inprobisazioaren bidez. Mugimendua ikastea: gorputza, esfortzua, denbora, pisua, espazioa, forma eta arintasuna.

**Konpetentziak:**
Inprobisazioko teknikak ezagutzea ikuspegi teknikotik eta interpretatibotik, teknikok interpretazioan aplikatzeko.
Inprobisazioko eta konposizio koreografikoko teknikak menderatzea, zeinek ahalbidetzen baitute sorkuntzarako eta konposizio koreografikorako gaitzen duten baliabideak izatea.
Gai izatea dantzari buruzko diskurtso propioa, ahozkoa, idatzizkoa edo bisuala landu, justifikatu eta azaltzeko, eta hainbat eremutan jakinaraztea: profesionalak, artistikoak, amateurrak, gai artistikoetan edo dantza-gaietan espezializatuak izan nahiz ez.

**Irakasgaia: Konposizioa eta Inprobisazioa I**

**Kurtsoa:** 1

Kreditu kop.: 3

**Deskribatzaileak:**
Sorkuntza- eta adierazkortasun-gaitasunak garatzea gorputz-hizkuntzak erabiliz, interpretazioari nahiz inprobisazioari dagokionez.
Sorkuntza-prozesuei hurbiltzea ahalbidetzen duten tresnak ezagutzea, hasi inprobisazioa mugimenduaren azterketaren ikasketatik harik eta inprobisazioaren oinarri diren printzipio, teoria eta funtsekin osatu arte ikasleen prestakuntza.
Konposizio koreografikoaren eta eszenikoaren moldeetan eta kode estetiko eta estilistiko ezberdinen arabera garatutako tekniketan sakontzea, aurkezpen-formatu ezberdinak ezagutuz edo esperimentatuz.
Sorkuntza koreografiko eta eszenikoari aurre egiteko moldeetara hurbiltzea eta sorkuntza-prozesuak ezagutu edo esperimentatzea diziplina artistiko ezberdinetako sortzaileekin egin topaketen bidez, zeinek dantza, gorputza eta mugimendua erabiltzen baitute euren diskurtso formalean.
Koreografoen eta sortzaileen sorkuntza-prozesuaren oinarrizko alderdiak.
Sorkuntza pertsonala interprete/koreografo gisa.

**Oharrak:** Konposizioa eta Interpretazioa I, II, III irakasgaiek hiru ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

**Konpetentziak:**
Inprobisazioko, sorkuntzako eta konposizioko teknikak ezagutzea.
Mugimenduaren osagai eta alderdi kualitatiboak behatu eta aztertzea.
Inprobisazioko eta konposizio koreografikoko teknikak aplikatzea, lan eszenikoen interpretazioan eta sorkuntzan.

**Irakasgaia: Sorkuntza-tailerrak, estiloen arabera I**

**Kurtsoa:** 1

**Kreditu kop.:** 6

**Deskribatzaileak:**
Sorkuntza-gaitasunak garatzea, ikaslearen hizkuntza pertsonala barneratzea ahalbidetzen duten sorkuntza-moldeen bilaketaren eta esperimentazioaren bidez. Konposizio koreografikoen funts teknikoen ezagutza eta praktika: gaia, denbora, espazioa, mugimendua eta hizkuntza. Koreografoen sorkuntza-prozesuaren oinarrizko alderdiak ezagutzea, zeinek estilo hautatuaren, gorputzaren eta mugimenduaren araberako dantzaren hizkuntza erabiltzen baitute euren diskurtso formalean. Koreografoaren eta dantzariaren papera lanaren sorkuntza-prozesuan.

**Oharrak:** Sorkuntza-tailerrak, estiloen arabera I, II, III irakasgaiek hiru ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

**Konpetentziak:**
Pertsonak gidatzeko gaitasuna izatea, haien sorkuntza-, prestakuntza- edo interpretazio-prozesuan, behar diren ezagutzak, baliabideak eta esperientziak izanik.
Oinarrizko teknikak eta metodologiak ezagutzea lehenengo ikerketa-jarduerak garatzeko.
Norbanakoaren berariazko ezaugarriak ulertzeko gaitasuna garatzea, haren interpretazioa eta sorkuntza-lana optimizatu ahal izateko.

**Irakasgaia: Errepertorioaren azterketa eta praktika I**

**Kurtsoa:** 1

**Kreditu kop.:** 6

**Deskribatzaileak:**
Hautatutako estiloaren araberako dantzak historian zehar izan duen eboluzioa markatu duten lanen ikasketa praktikoa, eta horien koreografia-kontzeptuak. Errepertorioaren ezagutzan sakontzea hautatutako lanen azterketa praktikoaren, bisualaren eta teorikoaren bidez, eta testuinguruan jartzea ikuspegi historiko, artistiko, kultural eta sozial batetik.
Lan koreografikoa osatzen duten elementuen azterketa (espazioa, denbora, estiloa, estetika, musika, teknika, osaera, eszenografia...). Lan bat osatzen duten hizkuntza eta diziplina artistikoen ezagutza (bideoa, testua, argia, musika, eszenografia...). Dantzarekin lotutako adierazpen artistikoen ikasketa osoa (testuinguru historikoa, soziala, antropologikoa, artistikoa, filosofikoa, estetikoa…).

**Oharrak:** Errepertorioaren azterketa eta praktika, estiloen arabera I, II, III irakasgaiek hiru ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

**Konpetentziak:**
Aldi ezberdinetako dantzako lanak, izan errepertoriokoak zein berriak, aztertu eta baloratzeko gogoeta- eta kritika-gaitasuna garatzea, besteak beste, alderdi historikoak, artistikoak eta sozialak barne hartzen dituen ikuspegi batetik.
Sortzaile nagusien joerak eta proposamenak ezagutzea, eta gai izatea hainbat estilo interpretatu eta menderatzeko.
Heldutasunez eta zorroztasunez ulertzea, ikasi eta interpretatzea lan koreografiko bat edo errepertorioko bat, maila tekniko, estilistiko, interpretaziozko eta artistiko handia erakutsiz.
Sorkuntza artistikoaren eta eszenikoaren azterketa kritiko eta metodologikoa eta judizio estetikoa ahalbidetzen duten ezagutza teorikoak izatea eta bateratzea.
Gai izatea dantzak testuinguru kultural ezberdinetan izan duen garapen eta eboluzio historikoa, soziala eta artistikoa aztertu eta baloratzeko.
Praktika eszenikoetan parte hartzea ahalbidetzen duten trebetasunak garatzea, eta taldeko edo solista funtzioak norbere egitea.
Dantzaren irakaskuntzako mugimenduak, joerak eta eskolak ezagutzea, baita dantza-estiloen garapen historikoa eta gaur egunera arte izan duen eboluzioa ere.
Gertaera eszenikoarekin loturiko egungo korronteak ezagutzea.

**Irakasgaia: Interpretazio-tailerrak, estiloen arabera I**

**Kurtsoa:** 1

**Kreditu kop.:** 10

**Deskribatzaileak:**
Egungo koreografia-estiloen ikasketa teknikoa eta interpretatiboa. Ikaslearen interpretazioa perfekzionatzea eta gaitasunak hobetzea dantzaren egungo estiloei ekiteko. Dantzako piezak ikastea, ezaugarri tekniko, estilistiko, interpretatibo eta musikal nagusietan sakonduz. Koreografoaren ikasketa, eta, hala dagokionean, hautatutako piezaren sorkuntza-prozesuarena. Maila honetara egokitutako interpretazioko praktika eszenikoak.

**Oharrak:** Interpretazio Tailerrak, estiloen arabera **I**, **II**, **III** irakasgaiek hiru ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

**Konpetentziak:**
Heldutasunez eta zorroztasunez ulertzea, ikasi eta interpretatzea lan koreografiko bat edo errepertorioko bat, maila tekniko, estilistiko, interpretatibo eta artistiko egokia erakutsiz.
Sortzaile nagusien joerak eta proposamenak ezagutzea, eta gai izatea maila honetarako proposatutako estiloak interpretatu eta menderatzeko.
Praktika eszenikoetan parte hartzea ahalbidetzen duten trebetasunak garatzea, eta taldeko eta solista funtzioak norbere egitea.

**Irakasgaia: Dantzari Aplikatutako Musika I**

**Kurtsoa:** 1

**Kreditu kop.:** 3

**Deskribatzaileak:**
Oro har, musikaren eta arte eszenikoen eta, zehazki, musikaren eta dantzaren arteko erlazioa. Musika- eta soinu-hizkuntzen oinarrizko ezagutzak, musika- eta soinu-egitura baten osaera ulertzea ahalbidetzen dutenak interpretazio eta konposizio koreografikoan aplikatzeko.

Dantzatuak izateko konposatutako musika-lanen berariazko ezaugarriak. Soinu-laborategiko aukerei eta musika garaikideari buruzko oinarrizko ezagutzak. Soinu-edizioko eta -manipulazioko programak erabiltzea, besteak beste.

**Oharrak:** Dantzari Aplikatutako Musika I eta II irakasgaiek bi ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

**Konpetentziak:**
Entzumen-, erritmo- eta melodia-gaitasunak garatzea musika-hizkuntzako elementuen ezagutza praktikoaren eta teorikoaren bidez.
Musika-printzipioak (erritmoa, melodia, armonia, etab.) eta diziplina eszenikoekiko (interpretazioa, eszenaratzea, dantza) horien erlazioa eta aplikazioa ezagutzea.
Musikaren fenomenoa ulertzea azterketa-, sorkuntza- eta interpretazio-prozeduren bidez.
Musika- eta soinu-egitura bat ulertzea interpretazio eta konposizio koreografikoan aplikatzeko.
Dantzatuak izateko konposatutako musika-lanen berariazko ezaugarriak ezagutzea.
Soinuaren edizioko eta manipulazioko oinarrizko ezagutzak bereganatzea.

**Irakasgaia: Dantzaren Ikaskuntza eta Garapena**

**Kurtsoa:** 1

**Kreditu kop.:** 4

**Deskribatzaileak:**
Dantzaren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak. Irakaskuntza-funtzioa. Hezkuntza-sistema. Dantzaren legezko araugintza-esparrua, kalitatea hobetzeko ereduak. Dantza kontzeptua eta haren pertzepzioa, arreta, emozioa, errepresentazioa, motibazioa, memoria eta hizkuntzaren osagaiak. Garapen kognitiboa, emozionala, soziala eta psikomotorea. Bizitza osoko ikaskuntza. Garapen pertsonala eta profesionala. Trantsizio profesionalak.

**Konpetentziak:**
Dantzaren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak sortzen diren printzipioak, testuinguruak eta araugintza-esparrua ezagutu eta ulertzea.
Dantzaren ikaskuntzan presente dauden prozesu psikologikoei buruzko gogoeta egitea.
Garapen motore, kognitibo, afektibo eta moralaren oinarriei buruzko funtsezko ezagutzak bereganatzea.
Onartzea dantzaren jarduera eta garapen profesionala etengabe hobetzen eta aldaketa kultural, sozial, humanistiko eta pedagogikoetara egokitzen joan behar dela bizian zehar.

**BIGARREN KURTSOA**

**Irakasgaia: Dantzaren Historia II**

**Kurtsoa:** 2

**Kreditu kop.:** 3

**Deskribatzaileak:**
Korronte estetiko berriak Europa Iraultzailean. Dantza neoklasikoa. J Dauberval, Ch. Le Pic y Ch. L. Didelot. Salvatore Viganoren koreodrama. Napoleonen mendeko Espainia: boleroa finkatzen da. Estetika erromantikoa: *Le style de l'âme*. Eskola frantsesaren hegemonia. Interprete, koreografo, kodetzaile eta lan nagusiak. Ballet erromantikoari harrera Danimarkan, Errusian eta Espainian. Dantza eszeniko espainiarraren garapena. Interprete, koreografo eta musikari nagusiak. Flamenkoa: jatorria, errepertorioa eta interpreteak. Eskola inperial errusiarra. M. Petipa eta L. Ivanov. Dantza modernoaren jatorria. *Ballets russes,* Diaghilev-ena. Abangoardiak eta dantza. *Ausdruktanz* alemaniarra. *Modern dance*-en jatorriak eta eboluzioa. Ballet klasikoaren eboluzioa Estatu Batuetan, Europan eta lehengo SESB-en. Interprete eta koreografo nagusiak. Diskurtso postmodernista. Dantza-antzerkia Europan. Dantza berria: Ingalaterra, Holanda eta Belgika. Dantzari aplikatutako teknologia berriak: kontzeptualetik diziplinartekora.

**Konpetentziak:**
Dantzaren irakaskuntzako mugimenduak, joerak eta eskolak ezagutzea, baita dantza-estiloen garapen historikoa eta gaur egunera arte izan duen eboluzioa ere. Gertaera historikoarekin loturiko egungo korronteak ezagutzea.
Gai izatea dantzak testuinguru kultural ezberdinetan izan duen garapen eta eboluzio historikoa, soziala eta artistikoa aztertu eta baloratzeko.
Sorkuntza artistikoaren eta eszenikoaren azterketa kritikoa eta metodologikoa eta judizio estetikoa ahalbidetzen duten ezagutza teorikoak izatea eta bateratzea.
Gai izatea dantzari buruzko diskurtso propioa, ahozkoa, idatzizkoa edo bisuala landu, justifikatu eta azaltzeko, eta hainbat eremutan jakinaraztea: profesionalak, artistikoak, amateurrak, gai artistikoetan edo dantza-gaietan espezializatuak izan nahiz ez.
Aldi ezberdinetan dantzako lanak, izan errepertoriokoak nahiz berriak, aztertu eta baloratzeko gogoeta- eta kritika-gaitasuna garatzea eta, besteak beste, alderdi historikoak, artistikoa eta sozialak barne hartzen dituen ikuspegi batetik.

**Irakasgaia: Fisiologia eta Dantzari Aplikatutako Elikadura**

**Kurtsoa:** 2

**Kreditu kop.:** 2

**Deskribatzaileak:**
Giza gorputzaren eta jarduera fisikoaren funtzionamenduaren oinarriak dantzari aplikatuak.
Elikaduraren oinarrizko ezagutzak eta horiek dantzari aplikatzea. Elikadura osasungarriaren oinarrizko printzipioak dantzan aritzeko.

**Konpetentziak:**
Giza gorputzaren funtzionamenduaren oinarrizko printzipioak ezagutzea, teorikoak nahiz praktikoak, eta dantzako jarduera fisikoaren fisiologiaren ikuspegi osoa emateko.
Giza elikaduraren oinarrizko printzipioak, teorikoak nahiz praktikoak, jarduera fisikoa egitean dauden berariazko beharrizanak eta dantzariaren eskakizun propioak ezagutzea.

**Irakasgaia: Dantza Klasikoaren Teknikak II**

**Kurtsoa:** 2

**Kreditu kop.:** 9

**Deskribatzaileak:**
Dantza klasikoaren teknika ikastea, dantza klasikoa osatzen duten mugimenduen ezagutzan eta burutzapenean sakontzea ahalbidetzen duten eskola praktikoen bidez, kalitate tekniko, musikal eta artistiko gorenarekin interpretatuak izateko gisan. Dantza klasikoa testuinguruan jarri eta funtsatzea. Dantza klasikoaren oinarri diren gorputzari eta mugimenduari buruzko teoriak eta funtsak.
Oharra: Dantza Klasikoa I, II, III, IV irakasgaiek lau ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

**Konpetentziak:**
Dantza klasikoa ulertu, sortu, interpretatu eta irakasteko gaitua izatea, eskatutako maila tekniko, estilistiko eta interpretatiboarekin.
Giza gorputzaren funtzionamenduaren oinarrizko printzipioak ezagutzea tekniken bidez, haren ikuspegi osoa eta bateratzailea emateko.
Dantzaren, mugimenduaren eta gorputz-diziplinen teknika eta hizkuntzen ezagutza zabala izatea, maila tekniko, estilistiko eta interpretatibo gorenarekin.
Heldutasunez eta zorroztasunez ulertzea, ikasi eta interpretatzea lan koreografiko bat edo errepertorioko bat, maila tekniko, estilistiko, interpretatibo eta artistiko handia erakutsiz.
Praktika eszenikoetan parte hartzea ahalbidetzen dioen trebetasunak garatzea.
Sortzaile nagusien joerak eta proposamenak ezagutzea, eta gai izatea hainbat estilo interpretatu eta menderatzeko.

**Irakasgaia: Dantza Garaikidearen Teknikak II**

**Kurtsoa:** 2

**Kreditu kop.:** 9

**Deskribatzaileak:**
Dantza garaikidearen teknika ikastea, dantza garaikidea osatzen duten mugimenduen ezagutzan eta burutzapenean sakontzea ahalbidetzen duten eskola praktikoen bidez, mugimenduok maila tekniko, estilistiko, interpretaziozko eta artistiko gorenarekin emanak izateko gisan.
Printzipio estetikoak eta teknikoak, dantza garaikidearen oinarri diren gorputza eta mugimenduari buruzko teoriak eta funtsak.

**Oharra:** Dantza Garaikidea I, II, III, IV irakasgaiek lau ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

**Konpetentziak:**
Dantza garaikidea ulertu, sortu, interpretatu eta irakasteko gaitua izatea, eskatutako maila tekniko, estilistiko eta interpretatiboarekin.
Dantzaren, mugimenduaren eta gorputz-diziplinen tekniken eta hizkuntzen ezagutza zabala izatea, maila tekniko, estilistiko eta interpretatibo gorenarekin.
Giza gorputzaren funtzionamenduaren oinarrizko printzipioak ezagutzea tekniken bidez, haren ikuspegi osoa eta bateratzailea emateko.

Praktika eszenikoetan parte hartzea ahalbidetzen dioten trebetasunak garatzea.
Heldutasunez eta zorroztasunez ulertu, ikasi eta interpretatzea lan koreografiko bat edo errepertorioko bat, maila tekniko, estilistiko, interpretatibo eta artistiko handia erakutsiz.
Sortzaile nagusien joerak eta proposamenak ezagutzea, eta gai izatea hainbat estilo interpretatu eta menderatzeko.
Sakonki ezagutzea dantza-, mugimendu- eta gorputz-teknikak, eta bestelako hizkuntzei buruzko ezagutzak izatea.

**Irakasgaia: Konposizioa eta Inprobisazioa II**

**Kurtsoa:** 2

**Kreditu kop.:** 3

**Deskribatzaileak:**
Sorkuntza- eta adierazkortasun-gaitasunak garatzea gorputz-hizkuntzak erabiliz, interpretazioari nahiz inprobisazioari dagokionez.
Sorkuntza-prozesuei hurbiltzea ahalbidetzen duten tresnak ezagutzea, hasi inprobisazioa mugimenduaren azterketaren ikasketatik harik eta inprobisazioaren oinarri diren printzipio, teoria eta funtsekin osatu arte ikasleen prestakuntza.
Konposizio koreografikoaren eta eszenikoaren moldeetan eta kode estetiko eta estilistiko ezberdinen arabera garatutako tekniketan sakontzea, aurkezpen-formatu ezberdinak ezagutuz edo esperimentatuz.
Sorkuntza koreografiko eta eszenikoari aurre egiteko moldeetara hurbiltzea eta sorkuntza-prozesuak ezagutu edo esperimentatzea diziplina artistiko ezberdinetako sortzaileekin egin topaketen bidez, zeinek dantza, gorputza eta mugimendua erabiltzen baitute euren diskurtso formalean.
Koreografoen eta sortzaileen sorkuntza-prozesuaren oinarrizko alderdiak.
Sorkuntza pertsonala interprete/koreografo gisa.

**Oharrak:** Konposizioa eta Interpretazioa I, II, III irakasgaiek hiru ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

**Konpetentziak:**
Inprobisazioko, sorkuntzako eta konposizioko teknikak ezagutzea.
Mugimenduaren osagai eta alderdi kualitatiboak behatu eta aztertzea.
Inprobisazioko eta konposizio koreografikoko teknikak aplikatzea, lan eszenikoen interpretazioan eta sorkuntzan.

**Irakasgaia: Sorkuntza-tailerrak, estiloen arabera II**

**Kurtsoa:** 2

**Kreditu kop.:** 6

**Deskribatzaileak:**
Sorkuntza-gaitasunak garatzea sorkuntza-molde ezberdinen bilaketaren eta esperimentazioaren bidez, zeinek ikaslearen hizkuntza pertsonala barneratzea ahalbidetzen baitute.
Konposizio koreografikoen funts teknikoen ezagutza eta praktika: gaia, denbora, espazioa, mugimendua eta hizkuntza. Koreografoen sorkuntza-prozesuaren oinarrizko alderdiak ezagutzea, zeinek estilo hautatuaren, gorputzaren eta mugimenduaren araberako dantzaren hizkuntza erabiltzen baitute euren diskurtso formalean. Koreografoaren eta dantzariaren papera lanaren sorkuntza-prozesuan.

**Oharrak:** Sorkuntza-tailerrak, estiloen arabera I, II, III irakasgaiek hiru ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

**Konpetentziak:**
Pertsonak gidatzeko gaitasuna izatea, haien sorkuntza-, prestakuntza- edo interpretazio-prozesuan, behar diren ezagutzak, baliabideak eta esperientziak izanik.
Oinarrizko teknikak eta metodologiak ezagutzea lehenengo ikerketa-jarduerak garatzeko.
Norbanakoaren berariazko ezaugarriak ulertzeko gaitasuna garatzea, haren interpretazioa eta sorkuntza-lana optimizatu ahal izateko.

**Irakasgaia: Errepertorioaren Azterketa eta Praktika II**

**Kurtsoa:** 2

**Kreditu kop.:** 6

**Deskribatzaileak:**
Hautatutako estiloaren araberako dantzaren eboluzioa historian zehar markatu duten lanen ikasketa praktikoa, eta horien kontzeptu koreografikoak. Errepertorioaren ezagutzan sakontzea hautatutako lanen azterketa praktikoaren, bisualaren eta teorikoaren bidez, eta testuinguruan jartzea ikuspegi historiko, artistiko, kultural eta sozial batetik.
Lan koreografikoa osatzen duten elementuen azterketa (espazioa, denbora, estiloa, estetika, musika, teknika, osaera, eszenografia...). Lan bat osatzen duten hizkuntza eta diziplina artistikoen ezagutza (bideoa, testua, argia, musika, eszenografia...). Dantzarekin lotutako adierazpen artistikoen ikasketa osoa (testuinguru historikoa, soziala, antropologikoa, artistikoa, filosofikoa, estetikoa…).

**Oharrak:** Errepertorioaren azterketa eta praktika, estiloen arabera I, II, III irakasgaiek hiru ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

**Konpetentziak:**
Aldi ezberdinetako dantzako lanak, izan errepertoriokoak nahiz berriak, aztertu eta baloratzeko gogoeta- eta kritika-gaitasuna garatzea, besteak beste, alderdi historikoak, artistikoak eta sozialak barne hartzen dituen ikuspegi batetik.
Sortzaile nagusien joerak eta proposamenak ezagutzea, eta gai izatea hainbat estilo interpretatu eta menderatzeko.
Heldutasunez eta zorroztasunez ulertu, ikasi eta interpretatzea lan koreografiko bat edo errepertorioko bat, maila tekniko, estilistiko, interpretatibo eta artistiko handia erakutsiz.
Sorkuntza artistikoaren eta eszenikoaren azterketa kritikoa eta metodologikoa eta judizio estetikoa ahalbidetzen duten ezagutza teorikoak izatea eta bateratzea.
Gai izatea aztertu eta baloratzeko dantzak testuinguru kultural ezberdinetan izan duen garapen eta eboluzio historikoa, soziala eta artistikoa.
Praktika eszenikoetan parte hartzea ahalbidetzen duten trebetasunak garatzea, eta taldeko edo solista funtzioak norbere egitea.
Dantzaren irakaskuntzako mugimenduak, joerak eta eskolak ezagutzea, baita dantza-estiloen garapen historikoa eta gaur egunera arte izan duen eboluzioa eres.
Gertaera eszenikoarekin loturiko egungo korronteak ezagutzea.

**Irakasgaia: Interpretazio-tailerrak, estiloen arabera II**

**Kurtsoa:** 2

**Kreditu kop.:** 10

**Deskribatzaileak:**
Egungo koreografia-estiloen ikasketa teknikoa eta interpretatiboa. Ikaslearen interpretazioa perfekzionatzea eta gaitasunak hobetzea dantzaren egungo estiloei ekiteko. Dantzako piezak ikastea, ezaugarri tekniko, estilistiko, interpretatibo eta musikal nagusietan sakonduz. Koreografoaren ikasketa, eta, hala dagokionean, hautatutako piezaren sorkuntza-prozesuarena. Maila honetara egokitutako interpretazioko praktika eszenikoak.

**Oharrak:** Interpretazio-tailerrak, estiloen arabera I, II, III irakasgaiek hiru ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

**Konpetentziak:**
Heldutasunez eta zorroztasunez ulertu, ikasi eta interpretatzea lan koreografiko bat edo errepertorioko bat, maila tekniko, estilistiko, interpretatibo eta artistiko egokia erakutsiz.
Sortzaile nagusien joerak eta proposamenak ezagutzea, eta gai izatea maila honetarako proposatutako estiloak interpretatu eta menderatzeko.
Praktika eszenikoetan arte hartzea ahalbidetzen duten trebetasunak garatzea eta taldeko eta solista funtzioak norbere egitea.

**Irakasgaia: Dantzari Aplikatutako Musika II**
**Ikasgaia:** Dantzari aplikatutako musika eta soinu-hizkuntzak

**Kurtsoa:** 2

**Kreditu kop.:** 3

**Deskribatzaileak:**
Oro har, musikaren eta arte eszenikoen eta, zehazki, musikaren eta dantzaren arteko erlazioa. Musika- eta soinu-hizkuntzen oinarrizko ezagutzak, musika- eta soinu-egitura baten osaera ulertzea ahalbidetzen dutenak interpretazioan eta konposizio koreografikoan aplikatzeko. Dantzatuak izateko konposatutako musika-lanen berariazko ezaugarriak. Soinu-laborategiko aukerei eta musika garaikideari buruzko oinarrizko ezagutzak. Soinu-edizioko eta -manipulazioko programak erabiltzea, besteak beste.

**Oharrak:** Dantzari Aplikatutako Musika I eta II irakasgaiek bi ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

**Konpetentziak:**
Entzumen-, erritmo- eta melodia-gaitasunak garatzea musika-hizkuntzako elementuen ezagutza praktikoaren eta teorikoaren bidez.
Musika-printzipioak (erritmoa, melodia, armonia, etab.) eta diziplina eszenikoekiko (interpretazioa, eszenaratzea, dantza) horien erlazioa eta aplikazioa ezagutzea.
Musikaren fenomenoa ulertzea azterketa-, sorkuntza- eta interpretazio-prozeduren bidez.
Musika- eta soinu-egitura bat ulertzea interpretazioan eta konposizio koreografikoan aplikatzeko.
Dantzatuak izateko konposatutako musika-lanen berariazko ezaugarriak ezagutzea.
Soinuaren edizioko eta manipulazioko oinarrizko ezagutzak bereganatzea.

**Irakasgaia: Dramaturgia eta Eszenaratzea**

**Kurtsoa:** 2

**Kreditu kop.:** 3

**Deskribatzaileak:**
Dramaturgiaren oinarri teorikoak eta praktikoak ikastea, eta hura praktika ezartzea sorkuntza koreografikoaren eta eszenikoaren prozesuan.
Haien kontzepzio berrian, dramaturgia eszenikoak ezagutzea, eta ikuskizunaren dramaturgia garaikideetan eragitea.
Eszenaratzea osatzen duten elementuak: jokaespazioa, argiztapena, jantziteria, karakterizazioa, soinu-espazioa, ikus-entzuneko espazioa.
Emanaldiaren espazioak eta formatuak.
Dantzaren dramaturgia.

**Konpetentziak:**
Sorkuntza-prozesuak ezagutzea, diskurtso formalean dantza, gorputza edo mugimenduak erabiltzen dituzten diziplina artistikoen topaketaren bidez sorkuntza-molde berriak aurkitzeko diziplinartekotasunetik abiatuz.
Hizkuntza eta diziplina eszeniko, artistiko, musikal eta bisualak aztertu eta erlazionatzea.
Genero dramatikoa eta dramaren teoria ezagutzea, haren genesitik funtsezko egitura-osagaietara; espazioa, denbora, egintza eta pertsonaia.
Gertakarien eta gatazken arabera analizatzea lanen egitura, testua, partitura edo koreografia bere osotasunean hartuta nahiz eszena edo sekuentzia bakoitzaren mailan.
Dramaturgia-sorkuntzaren eta -konposizioaren oinarrizko estrategiak ezagutzea (norbanakoaren motibazioa eta irudimena esploratzea, haren antolaketa eta lanketa, etab.).
Eszenaratzearen oinarrizko ezagutzak bereganatzea (jokaespazioa, argiztapena, eszenografia, ikuskizunaren teknikak, besteak beste), kutxa-eszenikoaren funtzionamendua ulertzeko, eta ikuskizunaren eremu eta formatu aniztasuna ezagutzea.
Sorkuntza artistikoaren eta eszenikoaren azterketa kritikoa eta metodologikoa eta judizio estetikoa ahalbidetzen duten ezagutza teorikoak bateratzea.

**Irakasgaia: Taldeen eta Erakundeen Psikologia**

**Kurtsoa:** 2

**Kreditu kop.:** 2

**Deskribatzaileak:**
Taldeen eta erakundeen psikologiara sarrera: talde-lana, lidergoaren garapena, pertsona arteko harremana. Giza baliabideak eta trebetasun pertsonalak kudeatzeko tresnak: arazoak ebazteko gaitasuna, kritika- eta autokritika-gaitasuna, erabakiak hartzea, trebetasun sozialak, konpromiso etikoa). Nortasunaren garapen soziala. Autoestimua eta autokontzeptua.

**Konpetentziak:**
Norbanakoaren berariazko ezaugarriak ulertzeko gaitasuna garatzea, eta hori guztia jardun pertsonalean aplikatzea.
Prozesu eta proiektu artistikoak diseinatu, antolatu, planifikatu, egin eta ebaluatzen jakitea.
Prozesu eta proiektu artistikoak zuzendu, kudeatu eta ekoiztea.
Sorkuntza-prozesu batean parte hartzeko gaitasuna, trebetasuna eta dohaina garatzea, norbere baliabideak eskainiz, eta malgutasunez, erantzukizunez, zintzotasunez eta eskuzabaltasunez konbinatu eta partekatu ahal izatea lan kolektiboan.
Pertsonak gidatzeko gaitasuna izatea, haien sorkuntza-, prestakuntza- edo interpretazio-prozesuan, behar diren ezagutzak, baliabideak eta esperientziak izanik.
Etsipen-egoeretan, arriskuak hartzeko eta tolerantzia izateko gaitasuna izatea.
Praktika eszenikoetan arte hartzea ahalbidetzen duten trebetasunak garatzea, eta taldeko edo solista funtzioak norbere egitea.

**HIRUGARREN KURTSOA**

**Irakasgaia:** Artearen Filosofia

**Kurtsoa:** 3

**Kreditu kop.:** 3

**Deskribatzaileak:**
Artearen oinarri diren pentsamendu-sistemak ezagutzea. Pentsamendu-sistemen eta diskurtso artistikoaren arteko erlazioa. Hizkuntza artistikoa pentsamendu sortzaile. Pentsamenduaren osagaia, lan artistikoaren funtsezko elementu gisa.

**Konpetentziak:**
Arteari buruzko gogoetari teoria filosofikoak aplikatzea.
Artearen egungo egoera identifikatzea eta aurreko garaiengandik zerk bereizten duen pentsatzea.
Arazo filosofikoak artearen egungo egoerarekin erlazionatzea.
Artistikoa denaren iraupena edo desagerpena kuestionatzea masen komunikazioaren eremuan.

**Irakasgaia: Gorputz-teknikak I**

**Kurtsoa:** 3

**Kreditu kop.:** 2

**Deskribatzaileak:**
Gorputza ezagutzeko teknikak ezagutzea eta praktikan jartzea. Teknikak: kontrola, erlaxazioa, prebentzioa, errehabilitazioa, konpontzea, ergonomikoa eta postura zuzentzea (adibidez, Pilates, Feldenkrais, Alexander, Ideokinesis, Yoga, Body-Mind Centering, Eutonía, Rolfing, RPG, Fedora Aberastury, besteak beste). Teknika hauen erlazioa koreografia- eta interpretazio-lanarekin, eta dantzaren praktikan sartzea. Dantzariaren prestakuntza fisikoari egokitutako entrenamendu-sistemak eta horren ebaluazio fisikoa ahalbidetzen duten tresnak ezagutzea.

**Oharra:** Gorputz-teknikak I eta II irakasgaiek bi ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

**Konpetentziak:**
Ikaslea gai izan behar da:
Entrenamenduko eta gorputz kontzientziako sistemen teknikak ezagutzeko.
Ulertzeko zein diren gorputzaren berariazko ezaugarriak eta ohiturak, eta, ondorioz, osasungarriak direnak garatu eta disfuntzionalak zuzentzeko.
Kontrol, erlaxazio, prebentzio, indartze, errehabilitazioko teknikak eta postura zuzentzekoak ezagutu eta baloratzeko.
Entrenamenduko eta gorputz-kontzientziako teknikak, materialak eta baliabideak hautau, erabili eta ebaluatzeko, norbere prestakuntza fisikorako eta koreografia- eta interpretazio-lanerako egokienak direnak.

**Irakasgaia: Dantza Klasikoaren Teknikak III**

**Kurtsoa:** 3

**Kreditu kop.:** 9

**Deskribatzaileak:**
Dantza klasikoaren teknika ikastea, dantza klasikoa osatzen duten mugimenduen ezagutzan eta burutzapenean sakontzea ahalbidetzen duten eskola praktikoen bidez, kalitate tekniko, musikal eta artistiko gorenarekin interpretatuak izateko gisan. Dantza klasikoa testuinguruan jarri eta funtsatzea. Dantza klasikoaren oinarri diren gorputzari eta mugimenduari buruzko teoriak eta funtsak.
Oharra: Dantza Klasikoa I, II, III, IV irakasgaiek lau ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

**Konpetentziak:**
Dantza klasikoa ulertu, sortu, interpretatu eta irakasteko gaitua izatea, eskatutako maila tekniko, estilistiko eta interpretatiboarekin.
Giza gorputzaren funtzionamenduaren oinarrizko printzipioak ezagutzea tekniken bidez, haren ikuspegi osoa eta bateratzailea emateko.
Dantzaren, mugimenduaren eta gorputz-diziplinen teknika eta hizkuntzen ezagutza zabala izatea, maila tekniko, estilistiko eta interpretatibo gorenarekin.
Heldutasunez eta zorroztasunez ulertu, ikasi eta interpretatzea lan koreografiko bat edo errepertorioko bat, maila tekniko, estilistiko, interpretatibo eta artistiko handia erakutsiz.
Praktika eszenikoetan parte hartzea ahalbidetzen dioten trebetasunak garatzea.
Sortzaile nagusien joerak eta proposamenak ezagutzea, eta gai izatea hainbat estilo interpretatu eta menderatzeko.

**Irakasgaia: Dantza Garaikidearen Teknika III**

**Kurtsoa:** 3

**Kreditu kop.:** 9

**Deskribatzaileak:**
Dantza garaikidearen teknika ikastea, dantza garaikidea osatzen duten mugimenduen ezagutzan eta burutzapenean sakontzea ahalbidetzen duten eskola praktikoen bidez, mugimenduok maila tekniko, estilistiko, interpretaziozko eta artistiko gorenarekin emanak izateko gisan.
Printzipio estetikoak eta teknikoak, dantza garaikidearen oinarri diren gorputzari eta mugimenduari buruzko teoriak eta funtsak.

**Oharra:** Dantza Garaikidea I, II, III, IV irakasgaiek lau ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

**Konpetentziak:**
Dantza garaikidea ulertu, sortu, interpretatu eta irakasteko gaitua izatea, eskatutako maila tekniko, estilistiko eta interpretatiboarekin.
Dantzaren, mugimenduaren eta gorputz-diziplinen teknika eta hizkuntzen ezagutza zabala izatea, maila tekniko, estilistiko eta interpretatibo gorenarekin.
Giza gorputzaren funtzionamenduaren oinarrizko printzipioak ezagutzea tekniken bidez, haren ikuspegi osoa eta bateratzailea emateko.
Praktika eszenikoetan parte hartzea ahalbidetzen dioten trebetasunak garatzea.

Heldutasunez eta zorroztasunez ulertu, ikasi eta interpretatzea lan koreografiko bat edo errepertorioko bat, maila tekniko, estilistiko, interpretatibo eta artistiko handia erakutsiz.
Sortzaile nagusien joerak eta proposamenak ezagutzea, eta gai izatea hainbat estilo interpretatu eta menderatzeko.
Sakonki ezagutzea dantza-, mugimendu- eta gorputz-teknikak, eta bestelako hizkuntzei buruzko ezagutzak izatea.

**Irakasgaia: Konposizioa eta Inprobisazioa III**

**Kurtsoa:** 3

**Kreditu kop.:** 3

**Deskribatzaileak:**
Sorkuntza- eta adierazkortasun-gaitasunak garatzea gorputz-hizkuntzak erabiliz, interpretazioari nahiz inprobisazioari dagokionez.
Sorkuntza-prozesuei hurbiltzea ahalbidetzen duten tresnak ezagutzea, hasi inprobisazioa mugimenduaren azterketaren ikasketatik harik eta inprobisazioaren oinarri diren printzipio, teoria eta funtsekin osatu arte ikasleen prestakuntza.
Konposizio koreografikoaren eta eszenikoaren lanketa-moldeetan eta kode estetiko eta estilistiko ezberdinen arabera garatutako tekniketan sakontzea, dauden aurkezpen formatuak ezagutuz eta esperimentatuz.
Sorkuntza koreografiko eta eszenikoari aurre egiteko moldeetara hurbiltzea eta sorkuntza-prozesuak ezagutu edo esperimentatzea diziplina artistiko ezberdinetako sortzaileekin egin topaketen bidez, zeinek dantza, gorputza eta mugimendua erabiltzen baitute euren diskurtso formalean.
Koreografoen eta sortzaileen sorkuntza-prozesuaren oinarrizko alderdiak.
Sorkuntza pertsonala interprete/koreografo gisa.

**Oharrak:** Konposizioa eta Interpretazioa I, II, III irakasgaiek hiru ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

**Konpetentziak:**
Inprobisazioko, sorkuntzako eta konposizioko teknikak ezagutzea.
Mugimenduaren osagai eta alderdi kualitatiboak behatu eta aztertzea.
Inprobisazioko eta konposizio koreografikoko teknikak aplikatzea, lan eszenikoen interpretazioan eta sorkuntzan.

**Irakasgaia: Sorkuntza-tailerrak, estiloen arabera III**

**Kurtsoa:** 3

**Kreditu kop.:** 6

**Deskribatzaileak:**
Sorkuntza-gaitasunak garatzea, sorkuntza-moldeen bilaketaren eta esperimentazioaren bidez, zeinek ikaslearen hizkuntza pertsonala barneratzea ahalbidetzen baitute. Konposizio koreografikoen funts teknikoen ezagutza eta praktika: gaia, denbora, espazioa, mugimendua eta hizkuntza. Koreografoen sorkuntza-prozesuaren oinarrizko alderdiak ezagutzea, zeinek estilo hautatuaren, gorputzaren eta mugimenduaren araberako dantzaren hizkuntza erabiltzen baitute euren diskurtso formalean. Koreografoaren eta dantzariaren papera lanaren sorkuntza-prozesuan.

**Oharrak:** Sorkuntza-tailerrak, estiloen arabera I, II, III irakasgaiek hiru ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

**Konpetentziak:**
Pertsonak gidatzeko gaitasuna izatea, haien sorkuntza-, prestakuntza- edo interpretazio-prozesuan, behar diren ezagutzak, baliabideak eta esperientziak izanik.
Oinarrizko teknikak eta metodologiak ezagutzea haien lehenengo ikerketa-jarduerak garatzeko.
Norbanakoaren berariazko ezaugarriak ulertzeko gaitasuna garatzea, haren interpretazioa eta sorkuntza-lana optimizatu ahal izateko.

**Irakasgaia: Errepertorioaren Azterketa eta Praktika III**

**Kurtsoa:** 3

**Kreditu kop.:** 6

**Deskribatzaileak:**
Hautatutako estiloaren araberako dantzaren eboluzioa historian zehar markatu duten lanen ikasketa praktikoa, eta horien koreografia-kontzeptuak. Errepertorioaren ezagutzan sakontzea hautatutako lanen azterketa praktikoaren, bisualaren eta teorikoaren bidez, eta testuinguruan jartzea ikuspegi historiko, artistiko, kultural eta sozial batetik.
Lan koreografikoa osatzen duten elementuen azterketa (espazioa, denbora, estiloa, estetika, musika, teknika, osaera, eszenografia...). Lan bat osatzen duten hizkuntza eta diziplina artistikoak ezagutzea (bideoa, testua, argia, musika, eszenografia, etab.). Dantzarekin lotutako adierazpen artistikoen ikasketa osoa (testuinguru historikoa, soziala, antropologikoa, artistikoa, filosofikoa, estetikoa…).

**Oharrak:** Errepertorioaren azterketa eta praktika, estiloen arabera I, II, III irakasgaiek hiru ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

**Konpetentziak:**
Dantzako lanak, izan errepertoriokoak nahiz berriak, aztertu eta baloratzeko gogoeta- eta kritika-gaitasuna garatzea, aldi ezberdinak aintzat hartuz, eta, besteak beste, alderdi historikoak, artistikoak eta sozialak barne hartzen dituen ikuspegi batetik.
Sortzaile nagusien joerak eta proposamenak ezagutzea, eta gai izatea hainbat estilo interpretatu eta menderatzeko.
Heldutasunez eta zorroztasunez ulertu, ikasi eta interpretatzea lan koreografiko bat edo errepertorioko bat, maila tekniko, estilistiko, interpretatibo eta artistiko handia erakutsiz.
Sorkuntza artistikoaren eta eszenikoaren azterketa kritikoa eta metodologikoa eta judizio estetikoa ahalbidetzen duten ezagutza teorikoak izatea eta bateratzea.
Gai izatea aztertu eta baloratzeko dantzak testuinguru kultural ezberdinetan izan duen garapen eta eboluzio historikoa, soziala eta artistikoa.
Praktika eszenikoetan parte hartzea ahalbidetzen duten trebetasunak garatzea, eta taldeko edo solista funtzioak norbere egitea.
Dantzaren irakaskuntzako mugimenduak, joerak eta eskolak ezagutzea, baita dantza-estiloen garapen historikoa eta gaur egunera arte izan duen eboluzioa ere.
Gertaera eszenikoarekin loturiko egungo korronteak ezagutzea.

**Irakasgaia: Interpretazio-tailerrak, estiloen arabera III**

**Kurtsoa:** 3

**Kreditu kop.:** 10

**Deskribatzaileak:**
Egungo koreografia-estiloen ikasketa teknikoa eta interpretatiboa. Ikaslearen interpretazioa perfekzionatzea eta gaitasunak hobetzea dantzaren egungo estiloei ekiteko. Dantzako piezak ikastea, ezaugarri tekniko, estilistiko, interpretatibo eta musikal nagusietan sakonduz. Koreografoaren ikasketa, eta, hala dagokionean, hautatutako piezaren sorkuntza-prozesuarena. Maila honetara egokitutako interpretazioko praktika eszenikoak.

**Oharrak:** Interpretazio-tailerrak, estiloen arabera I, II, III irakasgaiek hiru ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera. Tailer horietan emandako irakaskuntzen parte nahitaez izango dira erro tradizionala duten dantzak.

**Konpetentziak:**
Heldutasunez eta zorroztasunez ulertu, ikasi eta interpretatzea lan koreografiko bat edo errepertorioko bat, maila tekniko, estilistiko, interpretatibo eta artistiko egokia erakutsiz.
Sortzaile nagusien joerak eta proposamenak ezagutzea, eta gai izatea maila honetarako proposatutako estiloak interpretatu eta menderatzeko.
Praktika eszenikoetan parte hartzea ahalbidetzen duten trebetasunak garatzea eta taldeko eta solista funtzioak norbere egitea.

**Irakasgaia: Ahotsa eta Kantua**

**Kurtsoa:** 3

**Kreditu kop.:** 2

**Deskribatzaileak:**
Erlaxazioa, arnasketa, gorputz-jarrera, soinu-ekoizpena, ebakera eta zuzentasun fonetikoa. Fonazio-aparatuaren ezagutza anatomiko-fisiologikoa. Ahots-ezagutza eta -kontzientzia. Ahots-prestakuntza eta entrenamendua. Ahots-teknikaren alderdi guztiak menderatzea (arnasketa, erresonadoreak, artikulazioa, emisioa, etab.). Ahots-ekoizpenaren eta emisioaren teoriak, praktikak eta erabilerak. Gorputza, ahotsaren euskarri: anatomia, ahotsaren eta gorputzaren doikuntzak eta desdoikuntzak. Soinu-sormenaren estimulazioa. Ahotsa, interpretatzailearen eta koreografoaren tresna aktiboa eta sorkuntzakoa. Ahots kantatuaren adierazpen-teknikak ikastea. Talde-lanaren bidezko kantuaren oinarrizko trebakuntza, alderdi teknikoei eta interpretatiboei dagokienez. Ahozko kantuaren teoriaren eta praktikaren hastapenak.

**Konpetentziak:**
Ikaslea gai izan behar da:
Ikuspegi teorikotik, ahotsaren funtzionamendua ezagutu, ulertu eta transmititzen jakiteko: arnasketa-tresnak, fonadorea eta erresonadorea. Fonazio-aparatuaren izaerari eta, ahots-praktikarako aurreko eskakizun gisa, ahotsa bera ezagutzeari buruzko oinarri teoriko bat bereganatzeko.
Ahots-teknikaren alderdi guztiak garatzeko: erlaxazioa, jarrera posturala, arnasketaren maneiu egokia, artikulazio-mekanikaren eta soinu-ekoizpenaren jarrera postural zuzena.
Soinu-ekoizpenaren prozesua ulertzea. Emisioari buruzko ohitura ez-osasungarriak ezagutu eta zuzentzea. Gorputza soinu hoberena bilatzeko entrenatzea. Arnasketaren teknika garatu eta sakontzea. Erresonatzaileak aurkitzea eta elementu gisa erabiltzen jakitea: Psikofisikoa: zientifikoa edo sorkuntzakoa.
Hitzean, hizkuntza mintzatuaren musikaltasuna sartzea.

Kantuaren teknikaren oinarrizko elementuak garatzea: soinuaren kokapena. Arnasketa, erlaxazioa, fonazioa eta erresonantzia. Ahotsaren berariazko ezaugarriak ezagutzea. Ahots kantatuaren elementu teknikoak eta adierazkorrak ezagutu eta erabiltzea.

**Irakasgaia: Diziplinarteko Proiektuen Laborategia I**

**Kurtsoa:** 3

**Kreditu kop.:** 3

**Deskribatzaileak:**
Diziplinarteko proiektuen laborategiak (I eta II) proiektu irekiak dira, edukiei nahiz metodologiei dagokienez, zeinak gomendatzen baitizkie ikastetxeak eszenako profesional garrantzitsu diren kanpoko irakasleei, lauhileko batean garatu dezaten. Proiektu bakoitzak barne hartzen ditu Arte Dramatikoa, Dantza eta Eszenoteknia espezialitateetatik datozen eta hezkuntza-maila horretan ikasten ari diren ikasleak. Urtero antolatzen dira ikasle guztiak jaso ahal izateko behar diren laborategiak, landutako proiektuen izaeraren eta beharrizanen arabera.
Laborategi bakoitzaren helburuak dira:
Diziplina eta praktika artistikoen arteko loturak ezartzea.
Ikasitako ikasgaiak bateratzea.
Horien aplikazio praktikoa tailer monografiko batean, zeinetan sorkuntza-prozesu osoaren konplexutasunari ekiten baitzaio, prestakuntzako ezagutza-arloen zeharkakotasuna jasotzen baita eta espezialitate eta hizkuntza artistiko oro barne hartzea ahalbidetzen baitu.

**Oharrak:** Diziplinarteko Proiektuen Laborategiak I eta II irakasgaiek bi ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

**Konpetentziak:**
Ikaslea gai izan behar da:
Ikasitako ikasgaiak bateratu eta aplikatzeko. Interpretazio- eta koreografia-teknikak bateratu eta aplikatzeko tailer bateko praktika eszenikoan.
Testuaren, gidoiaren edo koreografiaren egilearen berariazko ezaugarriak eta haren lanaren gako estetikoak ezagutzeko, aurretik esistitzen den lan baten gainean lanean arituz gero.
Sortzen ari diren praktika artistikoak ezagutu eta aztertzea, eta gertakari eszeniko garaikidearekiko haien erlazioa eta aplikazioa esperimentatzea, joera teoriko eta kontzeptualak nahiz prozedurakoak eta esperimentalak inplikatuz.
Dramaturgia-teknikak erabiltzea, lana eta papera dantzaren perspektibatik analizatzeko.
Eszena-hizkuntzaren elementuak ezagutu eta bateratzea: eszenografia, jantziteria, argiztapena.
Inprobisazioaren, sorkuntzaren, interpretazioaren eta eszenan ezartzearen ikuspegiak erabiltzea, proposatutako poetika eszenikoaren esparruan.
Arte eszenikoetako artistekiko eta profesionalekiko topaketan eta eztabaidan parte hartzea, pentsamendua eta praktika eszenikoak berritzeari dagokionez.
Ikerketa-ekintza testuinguruan, lan-teknikak eta -prozedurak bereganatzea.

**LAUGARREN KURTSOA**

**Irakasgaia: Artearen eta Ikuskizunaren Historia**

**Kurtsoa:** 4

**Kreditu kop.:** 3

**Deskribatzaileak:** Ikuskizuneko arteen historia konparatuaren funtsezko ezagutzak: testuaren emanaldiaren, interpretazioaren teoria dramatikoaren, eszenografiaren eta eszenaratzearen historia.
Ikuskizunaren azterketa historikoa eta testuingurukoa.
Euskal Herriko ikuskizunen historia konparatua, haren jatorritik:
Adierazpen materialen eta horien testuinguru sozialen eta kulturalen azterketa.
Generoen eboluzioa, hasierako erritu- edo jai-jatorritik ikuskizun publikoaren egungo dimentsiora.
Ikerketa eta dokumentazio historikoa sartzea sorkuntzan.

**Konpetentziak:** Ikaslea gai izan behar da:

Arte eszenikoek eta ikuskizunak garai ezberdinetan izan dituzten pentsamenduaren, filosofiaren eta printzipio estetikoen funtsezko ezagutzak barneratzeko.
Emanaldia (dantza, antzerkia, musika eta ikus-entzunekoa), testua, interpretazioaren teoria dramatikoa, eszenografia, dantza eta eszenaratzearen historia konparatua ulertzea.
Ikuskizun-generoen ezaugarriak eta horiek denboran eta gizarte ezberdinetan izan dituzten aldaketak ezagutu eta erlazionatzea: antzerki-generoak, musikalak, dantzakoak, ikuskizun publikoen molde garaikideak, etab.
Historian izandako ikuskizun-sorkuntza eta -genero nagusiak eta egun duten eragina ezagutzea.
Arte eszenikoen (dantza, antzerkia, musika) eta horiek gertakari eszenikoen inplikatuta dauden beste arteekin (pintura, eskultura, arkitektura, zinema) duten erlazioaren azterketa historikoa, testuingurukoa eta diziplinartekoa egitea.
Euskal Herrian garai historiko ezberdinetan sortutako ikuskizunak ezagutzea, eta beste gizarte batzuetan dagokionarekin erlazionatzea.
Arte eszenikoek eta ikuskizunek, oro har, gizartean duten egitekoa ulertzea.
Sorkuntza-prozesuak analizatzea eta ikuskizunen sorkuntzaren ikerketarako eta agiri historikoetarako teknikak bereganatzea.

**Irakasgaia: Gorputz-teknikak I**

**Kurtsoa:** 4

**Kreditu kop.:** 3

**Deskribatzaileak:**
Gorputz-ezagutzaren teknikak ezagutzea eta praktikan jartzea. Teknikak: kontrola, erlaxazioa, prebentzioa, errehabilitazioa, konpontzea, ergonomikoa eta posturak zuzentzea (adibidez, Pilates, Feldenkrais, Alexander, Ideokinesis, Yoga, Body-Mind Centering, Eutonía, Rolfing, RPG, Fedora Aberastury, besteak beste). Teknika hauek koreografia- eta interpretazio-lanarekin duten harremana, eta teknika horiek dantzaren praktikan sartzea. Dantzariaren prestakuntza fisikoari egokitutako entrenamendu-sistemak eta horren ebaluazio fisikoa ahalbidetzen duten tresnak ezagutzea.

**Oharra:** Gorputz-teknikak I eta II irakasgaiek bi ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

**Konpetentziak:**
Ikaslea gai izan behar da:
Entrenamenduko eta gorputz kontzientziako sistemen teknikak ezagutzeko.
Gorputzaren berariazko ezaugarriak eta ohiturak zein diren ulertzeko, eta, ondorioz, osasungarriak direnak garatu eta disfuntzionalak zuzentzeko.
Kontroleko, erlaxazioko, prebentzioko, indartzeko, errehabilitazioko eta posturak zuzentzeko teknikak ezagutu eta baloratzea.
Entrenamendu eta gorputz kontzientziako teknika, material eta baliabide egokienak hautatu, erabili eta ebaluatzea norberaren prestakuntza fisikoaren eta koreografia- eta interpretazio-lanaren arabera.

**Irakasgaia: Dantza Klasikoaren Teknikak IV**

**Kurtsoa:** 4

**Kreditu kop.:** 5

**Deskribatzaileak:**
Dantza klasikoaren teknika ikastea, dantza klasikoa osatzen duten mugimenduen ezagutzan eta burutzapenean sakontzea ahalbidetzen duten eskola praktikoen bidez, kalitate tekniko, musikal eta artistiko gorenarekin interpretatuak izateko gisan. Dantza klasikoa testuinguruan jarri eta funtsatzea. Dantza klasikoaren oinarri diren gorputzari eta mugimenduari buruzko teoriak eta funtsak.
Oharra: Dantza Klasikoa I, II, III, IV irakasgaiek lau ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

**Konpetentziak:**
Dantza klasikoa ulertu, sortu, interpretatu eta irakasteko gaitua izatea, eskatutako maila tekniko, estilistiko eta interpretatiboarekin.
Giza gorputzaren funtzionamenduaren oinarrizko printzipioak ezagutzea tekniken bidez, haren ikuspegi osoa eta bateratzailea emateko.
Dantzaren, mugimenduaren eta gorputz-diziplinen teknika eta hizkuntzen ezagutza zabala izatea, maila tekniko, estilistiko eta interpretaziozko gorenarekin.
Heldutasunez eta zorroztasunez ulertu, ikasi eta interpretatzea lan koreografiko bat edo errepertorioko bat, maila tekniko, estilistiko, interpretatibo eta artistiko handia erakutsiz.
Praktika eszenikoetan parte hartzea ahalbidetzen dioten trebetasunak garatzea.
Sortzaile nagusien joerak eta proposamenak ezagutzea, eta gai izatea hainbat estilo interpretatu eta menderatzeko.

**Irakasgaia: Dantza Garaikidearen Teknikak IV**

**Kurtsoa:** 3

**Kreditu kop.:** 5

**Deskribatzaileak:**
Dantza garaikidearen teknika ikastea, dantza garaikidea osatzen duten mugimenduen ezagutzan eta burutzapenean sakontzea ahalbidetzen duten eskola praktikoen bidez,

mugimenduok maila tekniko, estilistiko, interpretaziozko eta artistiko gorenarekin emanak izateko gisan.
Printzipio estetikoak eta teknikoak, eta dantza garaikidearen oinarri diren gorputzari eta mugimenduari buruzko teoriak eta funtsak.

**Oharra:** Dantza Garaikidea I, II, III, IV irakasgaiek lau ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

**Konpetentziak:**
Dantza garaikidea ulertu, sortu, interpretatu eta irakasteko gaitua izatea, eskatutako maila tekniko, estilistiko eta interpretatiboarekin.
Dantzaren, mugimenduaren eta gorputz-diziplinen teknika eta hizkuntzen ezagutza zabala izatea, maila tekniko, estilistiko eta interpretatibo gorenarekin.
Giza gorputzaren funtzionamenduaren oinarrizko printzipioak ezagutzea tekniken bidez, haren ikuspegi osoa eta bateratzailea emateko.
Praktika eszenikoetan parte hartzea ahalbidetzen dioten trebetasunak garatzea.
Heldutasunez eta zorroztasunez ulertu, ikasi eta interpretatzea lan koreografiko bat edo errepertorioko bat, maila tekniko, estilistiko, interpretatibo eta artistiko handia erakutsiz.
Sortzaile nagusien joerak eta proposamenak ezagutzea, eta gai izatea hainbat estilo interpretatu eta menderatzeko.
Sakonki ezagutzea dantza-, mugimendu- eta gorputz-teknikak, eta bestelako hizkuntzei buruzko ezagutzak izatea.

**Irakasgaia: Diziplinarteko Proiektuen Laborategia II**

**Kurtsoa:** 4

**Kreditu kop.: 4**

**Deskribatzaileak:** Diziplinarteko Proiektuen Laborategiak (I eta II) proiektu irekiak dira, bai edukiei eta bai metodologiei dagokienez, eta lauhileko batean proiektu horiek garatu ditzaten gomendatzen die ikastetxeak eszenako profesional garrantzitsu diren kanpoko irakasleei. Proiektu bakoitzak barne hartzen ditu Arte Dramatikoa, Dantza eta Eszenoteknia espezialitateetatik datozen eta hezkuntza-maila horretan ikasten ari diren ikasleak. Urtero antolatzen dira ikasle guztiak jaso ahal izateko behar diren laborategiak, landutako proiektuen izaera eta beharrizanen arabera.
Laborategi bakoitzaren helburuak dira:
Diziplina eta praktika artistikoen arteko loturak ezartzea.
Ikasitako ikasgaiak bateratzea.
Horien aplikazio praktikoa tailer monografiko batean, zeinetan sorkuntza-prozesu osoaren konplexutasunari ekiten baitzaio, prestakuntzako ezagutza-arloen zeharkakotasuna jasotzen baita eta espezialitate eta hizkuntza artistiko oro barne hartzea ahalbidetzen baitu.

**Oharrak:** Diziplinarteko Proiektuen Laborategiak I eta II irakasgaiek bi ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.
Ikaslea gai izan behar da:
Ikasitako ikasgaiak bateratu eta aplikatzeko. Interpretazio- eta koreografia-teknikak bateratu eta aplikatzeko tailer bateko praktika eszenikoan.
Testuaren, gidoiaren edo koreografiaren egilearen berariazko ezaugarriak eta haren lanaren gako estetikoak ezagutzeko, aurretik esististzen den lan baten gainean lanean arituz gero.
Sortzen ari diren praktika artistikoak ezagutu eta aztertzeko, eta gertakari eszeniko garaikidearekiko haien erlazioa eta aplikazioa esperimentatzeko, joera teoriko eta kontzeptualak nahiz prozedurakoak eta esperimentalak inplikatuz.

Dramaturgia-teknikak erabiltzeko, lana eta papera dantzaren ikuspegitik analizatzeko.
Eszena-hizkuntzaren elementuak ezagutu eta bateratzeko: eszenografia, jantziteria, argiztapena.
Inprobisazioaren, sorkuntzaren, interpretazioaren eta eszenan ezartzearen ikuspegiak erabiltzeko, proposatutako poetika eszenikoaren esparruan.
Arte eszenikoetako artistekiko eta profesionalekiko topaketan eta eztabaidan parte hartzea, pentsamendua eta praktika eszenikoak berritzeari dagokionez.
Ikerketa-ekintza testuinguruan, lan-teknikak eta -prozedurak bereganatzea.

**Irakasgaia: Dantzari Aplikatutako Teknologia**

**Kurtsoa:** 3

**Kreditu kop.:** 4

**Deskribatzaileak:** Sorkuntza eta konposizio koreografikoari eta eszenikoari aplikatutako teknologiak. Multimediako eta bideo-dantzako prozesu artistikoak ikastea. Teknologien oinarrizko ezagutza aplikazioko hainbat alderdi aintzat hartuz: artxiboa, notazioa, ikerketa eta sorkuntza, besteak beste. Sorkuntza eta konposizio koreografikoaren eta eszenikoarekin zerikusia duten programak ezagutu eta erabiltzea.

**Oharrak:** Dantzari Aplikatutako Teknologia I eta II irakasgaiek bi ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

**Konpetentziak:**
Ikaslea gai izan behar da:
Besteak beste, hizkuntza, diziplina eta tresna artistikoak, teknologikoak, eszenikoak, musikalak, bisualak ezagutu eta bateratzeko, gaitasunak eta trebetasunak garatzeko xedearekin.
Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak aplikatzea dantzan, hainbat modutara erabiltzeko.
Sorkuntza-prozesuak ezagutzea, euren diskurtso formalean dantza, gorputza edo mugimendua erabiltzen duten diziplina artistiko ezberdinen topaketaren bidez, diziplinartekotasunetik abiatuta, sorkuntza-molde berriak aurkitzeko xedearekin.
Hizkuntza eta diziplina eszenikoei, artistikoei, musikalei eta bisualei buruzko ezagutzak izatea, eta horiek elkarren artean erlazionatzeko gaitasuna garatzea. Baliabide teknologikoak erabiltzea sorkuntza eta konposizio koreografikorako.

**Irakasgaia: Proiektuak antolatu, kudeatu eta lantzea II**

**Kurtsoa:** 4

**Kreditu kop.:** 6

**Deskribatzaileak:** Proiektu artistikoak ezagutu eta lantzea, ekoizpena, finantzazioa, legeria, promozioak, marketina eta abar aintzat hartuz. Komunikazio intelektuala. Kultura-kudeaketako kontzeptuak eta esperientziak. Kultura-politikak eta erakundeak aztertzea. Publikoak analizatu eta garatzea. Programazio Sareen estrategiak. Ikuskizunak sortu eta ekoiztea.

**Oharrak:** Proiektuak antolatu, kudeatu eta lantzea I eta II irakasgaiek bi ikasturtetan emateko irakasgai bakarra osatzen dute. Gradualki egituratuko dira deskribatutako edukiak, irakasgaia ematen duen ikastetxeko dagokion departamendu didaktikoak irakas-gidan ezartzen duen tenporalizazioaren arabera.

**Konpetentziak:**
Ikaslea gai izan behar da:
Proiektu artistikoak diseinatu, antolatu, planifikatu, egin eta ebaluatzen jakiteko.
Proiektu artistikoak zuzendu, kudeatu eta ekoizteko.
Publikoak sentsibilizatu eta garatzeko estrategiak analizatu eta garatzeko.
Ikuskizuneko arteen indarreko araudia ezagutu eta analizatzeko. Kontratu-mota ezberdinetatik eratortzen diren legezko alderdiak ezagutzeko, interpretatzaileen eta teknikarien edo bestelako sorkuntzako pertsonalaren kontratazioari dagokionez nahiz ikuskizunen emanaldiei eta autoretza-eskubide jabetza intelektual buruzko kontratuei dagokienez.
Ekoizpen eta banaketa eszenikoari laguntzeko administrazio publikoen eta erakunde pribatuen politikak ezagutzeko, baita horietara sarbidea izateko behar diren agiriak prestatzeko modua ere.
Arte eszenikoko merkatuaren berariazko ezaugarriak ezagutzeko: ikuskizunen ekoizpena eta demanda, publiko-motak, marketin eszenikoa, etab.
Ekoizpen eszenikoko proiektu bat prestatzeko kudeaketa kultural eta ekonomikoaren ikuspegitik, eta berau garatzen deneko esparru sozio-laborala baloratzea.
Interpretariaren laneko irteerak eta lana aktiboki bilatzeko estrategiak ezagutzeko.

**Irakasgaia: Ikerketaren Metodologia**

**Kurtsoa:** 4

**Kreditu kop.:** 2

**Deskribatzaileak:**
Ikerketa zientifikoaren funtsezko oinarriak eta helburuak. Metodo zientifikoa. Hezkuntza-ikerketaren metodologiak ezagutu eta aplikatzea, konbentzionalak eta berritzaileak, zeinek ahalbidetzen baitiote ikasleari dantzaren pedagogiarekin zerikusia duten proiektu propioak garatzea eta ikerketa artistikorako eta hezkuntza-ikerketarako bide berri bat irekitzea, teknologiak aplikatuz eta, besteak beste, berrikuntza eta ikerketa pedagogiko, artistiko, teknologiko, dokumental eta historikoko ekipoak eta proiektuak bultzatuz. Ikerketa bat diseinatu eta prestatzea. Informazio-zentroak eta erabilera bibliografikoa. Argitalpen-motak.

**Konpetentziak:**
Gai izatea dantzari buruzko diskurtso propioa, ahozkoa, idatzizkoa edo bisuala landu, justifikatu eta azaltzeko, eta horren berri hainbat eremutan ematea: profesionalak, artistikoak, amateurrak, gai artistikoetan edo dantza-gaietan espezializatuak izan nahiz ez.
Oinarrizko teknikak eta metodologiak ezagutzea lehenengo ikerketa-jarduerak garatzeko.
Hainbat maila, esparru eta kolektibotan, prestakuntzako, hezkuntzako, komunitateko eta osasunarekin zerikusia duten prozesuak eta proiektuak diseinatu, antolatu, planifikatu eta ebaluatzen jakitea.
Material eta baliabide didaktikoak prestatu, hautatu, erabili eta ebaluatzeko gaitasuna garatzea, lan egiten duen testuinguruaren arabera (profesionalizatzailea, soziala, hezkuntzako, terapeutikoa, historikoa, teknologikoa).
Praxiari berari buruz gogoeta egiten jakitea irakaslana eta hezkuntza-lana berritu eta hobetzeko, kontzeptu teorikoak eta lan-praktikan horiek duten oihartzuna barneratuz. Ikaskuntza autonomorako eta kooperatiborako ohiturak eta trebetasunak bereganatzea.

**Irakasgaia: Kanpoko praktikak**

**Kurtsoa:** 4

**Kreditu kop.:** 10

**Deskribatzaileak:**
Praktikek barne hartzen dituzte prestakuntza-prozesuan zehar bereganatutako ezagutzak, eta lan-esparruan eskuratutako esperientziarekin jartzen dituzte aurrez aurre, programa akademiko baten tutoretzapean. Errepertorioko praktika, sorkuntza koreografikoko eta eszenikoko praktika. Ikerketa-laborategiko praktika, besteak beste. Zenbait konpetentzia profesional indartzera bideratuak daude praktikak, zeinak espezialitateko goi-mailako ikasketen konpetentziari eta ibilbideko konpetentziei lotuak baitaude. Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Espazioko truke- eta mugikortasun-programen bidez ere burutu ahal izango dira praktikak.
Baldin eta profesionalen mailarekin pareka daitezkeen muntaketa eszenikoak egiten dituzten konpainia bat edo gehiago badu ikastetxe emaileak; horietan parte hartzea kanpoko praktikak egitearen parekoa izango da, araudi akademikoak ezartzen dituen baldintzetan, betiere.
Dena den, irakasle bat izendatuko du ikastetxe emaileak, edo adostutako hezkuntza-programa bat betetzea.
Hezkuntza-administrazioak, ikastetxe emaileari kontsulta egin eta gero, kanpoko praktikak egiteko baldintzak, eskakizunak eta bermeak arautuko ditu, baita baliokidetze posibleak ere praktikekin pareka daitekeen lan-esperientzia profesionalik baduela frogatzen badu ikasleak.

**Konpetentziak:**
Ikaslea gai izan behar da:
Egokitu zaion proiektuaren errealitate profesionalean bereganatutako ezagutzak aplikatu eta osatzeko.
Bere jarduna burutuko duen lan-merkatuaren errealitatera hurbiltzeko.
Zeharkako konpetentziak, konpetentzia orokorrak eta berariazkoak bereganatzeko, jardun profesionalerako prestatzen duen eta haren enplegagarritasuna eta errendimendu-gaitasuna errazten duen ekoizpen-esparru erreal batean.
Heldutasun interpretatibo eta koreografiko nahikoa erakusteko.
Autonomia demostratzeko egokitu zaizkion egitekoetan.
Ikasteko, talde-lanean aritzeko eta etengabe hobetzeko jarrera aktiboa izateko.
Konpromisoak eta erantzukizunak bere gain hartzeko gaitasuna garatzeko.
Pertsona arteko trebetasunak erakusteko publikoarekin eta gainerako profesionalekin.
Jakin-mina eta interesa erakusteko praktikak egiten diren ekipoaren, enpresaren, entitatearen edo erakundearen funtzionamendu osoarekiko.
Hizkuntzen ezagutza aplikatzeko, hala eskatuz gero.

**Irakasgaia: Ikasketen Amaierako Lana**

**Kurtsoa:** 4

**Kreditu kop.:** 7

**Deskribatzaileak:**
Jasotako prestakuntza-edukiak eta bereganatutako konpetentziak jasotzen dituen lana.
Ikerketa-metodologien ezagutza eta aplikazioa ekarriko du, konbentzionalak nahiz berritzaileak, ikasleari ahalbidetuko diotenak proiektu propioak garatzea eta bide berri bat irekitzea sorkuntza, interpretazio era ikerketa artistikorako.
Ikasketen amaierako lanaren helburua da titulazioarekin zerikusia duten zeharkako edukien, eduki orokorren eta berariazkoen konpetentzien bereganatze-maila egiaztatzea, eta baita jarduera profesionala burutzeko duen gaitasuna frogatzea ere.
Agiri bat edo arte eszenikoen ikerketako konpetentziak bereganatzea sustatzera bideratutako esperientzia pedagogiko bat, proiektu sozial bat edo errealizazio artistiko bat prestatu beharko da.

Dokumentala, historiografikoa edo performatiboa izan ahal izango da, eta Koreografia eta Interpretazioa espezialitateko Dantzako Goi Mailako Tituluaren profil profesionalean ezarritako eremuren bati buruzkoa izango da.

Ikasketen amaierako lana bakarkakoa ala taldekakoa izan ahal izango da, baina bakarka defendatuko da.

Ikasleak proposatu ahal izango du lanaren gaia, baina dagokion Didaktika Departamenduari egokituko zaio onartzea ala ez, bertan garatuko diren ikerketa-lerroekin duen lerrokatzearen arabera.

Espezialitateko ikasketa-plana osatzen duten irakasgairen bateko irakasle arduradun baten zuzendaritzapean burutuko da ikasketen amaierako lana.

Lana amaituta, ikasleak lana bera publikoki defendatuko du ikastetxe emaileak horretarako izendatutako epaimahaiaren aurrean.

Hezkuntza-administrazioak, ikastetxe emailearekin bat, ezarriko du ikasketen amaierako lanaren berariazko araudia edo erregelamentazioa.

**Konpetentziak:**

Ikaslea gai izan behar da:

Ikerketa-jarduera bat gauzatu eta dokumentatzeko dantzaren eremuan.

Proiektuak eskatzen dituen faseak eta metodologiak ezarri eta garatzeko: dokumentatzea, egituratzea, informazioa eta datuak bilatzeko teknikak bilatzea, ondorioak ateratzea, etab.

Lan-hipotesi bat ezartzeko eta ikerketa-estrategiak planteatzeko.

Diziplinako jakintza-eremu baten ezagutza ulerkor eta esanguratsua erakusteko.

Iritzi informatuak eta arduratsuak prestatzeko, baita ikerketaren xede de alorrean edo prozesuan proposamen alternatiboak ere.

Kolaboratzeko, taldean lan egiteko eta aniztasunari eta desadostasunari errespetua erakusteko.

Ideiak zalu eta argi komunikatzeko, ahoz nahiz idatziz, eta, horretarako, komunikazioak eskatzen dituen baliabide teknologikoak erabiltzeko.

III. ERANSKINA, OTSAILAREN 16KO 22/2016 DEKRETUARENA.

ZEHARKAKO KONPETENTZIAK

T1. Lana era eraginkorrean eta motibatzailean antolatu eta planifikatzea.

T2 Informazio esanguratsua behar bezala bildu, aztertu, laburbildu eta kudeatzea.

T3 Arazoak konpontzea, eta egiten den lanaren helburuei erantzuteko erabakiak hartzea.

T4 Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak eraginkortasunez erabiltzea.

T5 Gutxienez atzerriko hizkuntza bat ulertu eta erabiltzea bere lan-jardunean.

T6 Norbere jarduera profesionalaren eta interpertsonalaren autokritika egitea.

T7 Komunikazio-gaitasunak eta kritika eraikitzailea erabiltzea talde-lanean.

T8 Ideiak eta argudioak era arrazoituan eta kritikoan garatzea.

T9 Egoki txertatzea diziplina anitzeko taldeetan eta testuinguru kulturaletan.

T10 Lantaldeak gidatu eta kudeatzea.

T11 Balioespen eta sentsibilitate estetikoan, ingurumenekoan eta aniztasuneranzkoan oinarritutako etika profesionala garatzea lan-praktikan.

T12 Lehia-baldintzetan, aldaketa kulturalei, sozialei eta artistikoei eta lan-eremuan gertatzen diren aurrerapenei moldatzea, eta etengabeko prestakuntzaren bide egokiak hautatzea.

T13 Bikaintasuna eta kalitatea bilatzea jardun profesionalean.

T14 Ikerketako metodologia menderatzea proiektu, ideia eta soluzio bideragarriak sortzean.

T15 Era autonomoan lan egitea, eta ekimenaren garrantzia eta espiritu ekintzailea baloratzea jardun profesionalean.

T16 Kultura- eta ingurumen-ondasunarekiko erantzukizunez erabiltzea eskura dituen bitartekoak eta baliabideak.

T17 Bere lan-jardunarekin, kultura bezalako ondarearen garrantziaz, horrek hainbat esparrutan duen eraginaz eta balio esanguratsuak sortzeko duen gaitasunaz sentsibilizatzen laguntzea gizarteari.

IV. ERANSKINA, OTSAILAREN 16KO 22/2016 DEKRETUAREN A.

GAITASUN OROKORRAK

G1 Dantza ulertu, sortu, interpretatu eta irakasteko gaitua izatea eskatutako maila tekniko, estilistiko eta interpretatiboarekin.

G2 Dantzaren, mugimenduaren eta gorputz-diziplinen tekniken eta hizkuntzen ezagutza zabala izatea, baita errepertorioa ere ikuspegi tekniko, estilistiko eta interpretatibotik.

G3 Giza gorputzaren funtzionamenduaren oinarrizko printzipioak ezagutzea, teorikoak nahiz praktikoak, haren ikuspegi osoa eta bateratzailea emateko.

G4 Norbanakoaren berariazko ezaugarriak ulertzeko gaitasuna garatzea, eta hori guztia garapen eta jardun profesionalean aplikatzea.

G5 Pertsonak gidatzeko gaitasuna izatea, haien sorkuntza-, prestakuntza- edo interpretazio-prozesuan, behar diren ezagutzak, baliabideak eta esperientziak izanik.

G6 Etsipen egoeretan, arriskuak hartu eta tolerantzia izateko gaitasuna izatea.

G7 Gai izatea testuinguru kultural ezberdinetan, dantzaren garapen eta eboluzio historikoa, soziala eta artistikoa aztertu eta baloratzeko.

G8 Besteak beste, hizkuntza, diziplina eta tresna artistikoak, teknologikoak, eszenikoak, musikalak, bisualak ezagutzea eta trebeki bateratzea, gaitasunak eta trebetasunak garatzeko.

G9 Proiektuen kudeaketa, ekoizpena, banaketa eta zuzendaritzarekin zerikusia duten tekniken erabilera eraginkorra barne hartzen duten trebetasun pertsonalak bereganatzea.

G10 Gai izatea dantzari buruzko diskurtso propioa, ahozkoa, idatzizkoa edo bisuala landu, justifikatu eta azaltzeko, eta hainbat eremutan jakinaraztea: profesionalak, artistikoak, amateurrak, horiek gai artistikoetan edo dantza-gaietan espezializatuak izan zein ez.

G11 Oinarrizko teknikak eta metodologiak ezagutzea, lehenengo ikerketa-jarduerak garatzeko.

G12 Praktika eszenikoetan parte hartzea ahalbidetzen duten trebetasunak garatzea, eta taldeko edo solista funtzioak norbere egitea.

G13 Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak ezagutzea eta dantzan aplikatzea, hainbat eratara erabiltzeko.

G14 Sorkuntza artistikoaren eta eszenikoaren azterketa kritikoa eta metodologikoa eta judizio estetikoa ahalbidetzen duten ezagutza teorikoak izatea eta bateratzea.

V. ERANSKINA, OTSAILAREN 16KO 22/2016 DEKRETUARENA.

KOREOGRAFIA ETA INTERPRETAZIOKO BERARIAZKO KONPETENTZIAK

**ECI1** Gai izatea diskurtso propioa garatzeko sorkuntza koreografikoaren edo interpretazioaren bidez.

**ECI2** Sakonki ezagutzea dantza-, mugimendu- eta gorputz-teknikak, eta bestelako gorputz-hizkuntzak edo -diziplina batzuei buruzko ezagutzak izatea.

**ECI3** Ezagutzea giza gorputzaren anatomia, fisiologia eta biomekanika, eta hark adierazpide artistiko gisa dituen gaitasunak eta mugak, baita ohiko patologiak eta horien prebentzioa ere, haren interpretazioa eta sorkuntza-lana optimizatu ahal izateko.

**ECI4** Norbanakoaren berariazko ezaugarriak ulertzeko gaitasuna garatzea, haren interpretazioa eta sorkuntza-lana optimizatu ahal izateko.

**ECI5** Inprobisazioko, sorkuntzako eta konposizio koreografikoko teknikak ezagutzea ikuspegi teknikotik eta interpretaziozkotik, teknikok interpretazioan aplikatzeko.

**ECI6** Inprobisazio- eta konposizio-teknikak menderatzea, zeinak ahalbidetzen baitute sorkuntzarako eta konposizio koreografikorako gaitzen duten baliabideak izatea.

**ECI7** Sorkuntza-prozesuak ezagutzea, diskurtso formalean dantzak, gorputzak edo mugimenduak erabiltzen dituzten diziplina artistikoen topaketaren bidez sorkuntza-molde berriak aurkitzeko diziplinartekotasunetik abiatuz.

**ECI8** Hizkuntza eta diziplina eszenikoei, artistikoei, musikalei eta bisualei buruzko ezagutzak izatea, eta horiek elkarren artean erlazionatzeko gaitasuna garatzea.

**ECI9** Dantzako lanak, izan errepertoriokoak nahiz berriak, aztertu eta baloratzeko gogoeta- eta kritika-gaitasuna garatzea, aldi ezberdinak aintzat hartuz, eta, besteak beste, alderdi historikoak, artistikoak eta sozialak barne hartzen dituen ikuspegi batetik.

**ECI10** Behar duen musika-ezagutza bereganatzea musika dantzarekin eta ekintza eszenikoarekin erlazionatu eta elkarreragiteko erak interpretatu, sortu eta ulertzea gaitzeko.

**ECI11** Eszenaratzearen (jokaespazioa, argiztapena, eszenografia, ikuskizunaren teknikak, besteak beste) oinarrizko ezagutzak bereganatzea kutxa-eszenikoaren funtzionamendua ulertzeko, eta emanaldiaren eremu eta formatu aniztasuna ezagutzea.

**ECI12** Prozesu eta proiektu artistikoak diseinatu, antolatu, planifikatu, egin eta ebaluatzen jakitea. Prozesu edo proiektu artistikoak zuzendu, kudeatu eta ekoiztea.

**ECI13** Heldutasunez eta zorroztasunez ulertu, ikasi eta interpretatzea lan koreografiko bat edo errepertorioko bat, maila tekniko, estilistiko, interpretaziozko eta artistiko handia erakutsiz.

**ECI14** Sortzaile nagusien joerak eta proposamenak ezagutzea, eta gai izatea hainbat estilo interpretatu eta menderatzeko.

**ECI15** Gai izatea sorkuntza-prozesuei eta horiek osatzen dituzten lan-taldeei egokitzeko (dantzariak, koreografoak, zuzendari eszenikoa, errealizadorea, besteak beste). Sorkuntza-prozesu batean parte hartzeko gaitasuna, trebetasuna eta dohaina garatzea, baliabide propioak eskainiz eta talde-lanean malgutasunez, arduraz, zintzotasunez eta eskuzabaltasunez konbinatu eta elkarbanatzea ahalbidetuz.

**ECI16** Sorkuntza koreografikoaren eremuetako joera eta proposamen berrienak ezagutzea, zuzeneko ikuskizunekoak nahiz ikus-entzunekoak.

**ECI17** Baliabide teknologikoak ezagutzea, eta horiek erabiltzeko gai izatea sorkuntza eta konposizio koreografikorako.

VI. ERANSKINA, OTSAILAREN 16KO 22/2016 DEKRETUAREN A.

INTERPRETAZIOA ESPEZIALITATEKO DANTZAKO TITULUAREN JABE DENAREN PROFIL PROFESIONALA.

Artista, sortzaile, interpretatzaile eta zeinu-komunikatzaile bati dagokio Koreografia eta Interpretazioa espezialitatean definitutako profila, zeinak bere burua tresna gisa erabiltzen baitu, bere adierazpide, gorputz, ahots eta baliabide kognitibo eta emozionalez baliatuz ikuskizunaren mesedetarako. Ikuspegi artistiko pertsonala garatzen du, eta beste artista batzuenarekin konbinatzen, proiektu artistiko komun batean parte hartuz. Ikerketarako eta irakaskuntzarako gaitua izango da profesional hori.